

Euskaltzaindiaren 2008ko Oroitidazkia

Bilbo, 2009ko urriaren 23a

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	5
I. Erakundearen jarduerak	6
I.1. Akademiaren jarduerak	6
I.2. Batzar bereziak.....	11
I.3. Kanpoko jarduerak.....	14
I.4. Heriotzak.....	17
I.5. Hilberri txostenak.....	19
I.6. Izendapenak eta ordezkapenak.....	19
II. Akademia-jarduera	25
II.1. Hiztegi gintza	26
II.1.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia	26
II.1.2. Hiztegi Batua	26
II.1.3. Zientzia eta Teknika hiztegia.....	28
II.2. Gramatika	29
II.3. Dialektologia.....	31
II.3.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa	31
II.3.2. Ahozko Tradizioko Hizkeren Corputa	32
II.4. Onomastika	33
II.4.1. Euskal Corpus Onomastikoa.....	35
II.4.2. Gasteizko Toponimia.....	35
II.5. Exonomastika	36
II.6. Literatura.....	37
II.6.1. Herri Literatura	37
II.6.2. Literatura Ikerketa	38
II.6.3. Sariketak	39
II.7. <i>Jagon</i> saila	42
II.7.1. Corpus alorreko lanak	42
II.7.2. Euskalkien lantaldea	43
II.7.3. Sustapen alorreko lanak	43
II.7.4. Joanes Etxeberri egitasmoa	46
III. Erakunde zerbitzuak	47
III.1. Egoitza eta ordezkariak.....	47
III.2. Azkue Biblioteka	55
III.2.1. Egitasmoak eta zerbitzua	55
III.2.2. Azkue Biblioteka batzordea.....	56

III.3. Argitalpenak	57
III.3.1. Argitalpen batzordea.....	57
III.3.2. Argitalpen eta salmenta zerbitzua.....	60
III.4. Informazio eta komunikazioaren teknologiak	62
IV. Herri Administrazio eta erakundeak	63
IV.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak	63
IV.2. Nafarroako Gobernua.....	64
IV.3. Espainiako administrazioa	66
IV.4. Frantziako administrazio publikoak.....	66
IV.5. Udalak	67
IV.6. Unibertsitateak	70
IV.7. Euskaltel.....	70
IV.8. EiTb	70
IV.9. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	70
IV.10. Topagunea	71
IV.11. FEVE.....	71
IV.12. Bizkaia Irratia.....	71
IV.13. Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT).....	71
IV.14. Labayru Euskal Kultur Erakundea	71
IV.15. Elhuyar Fundazioa.....	71
IV.16. Olaso Dorrea Sorrerakundea	71
IV.17. Euskalerrria Irratia.....	71
IV.18. <i>Berria</i> egunkaria.....	72
IV.19. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	73
IV.20. Bergarako Irigoyen patronatua	73
IV.21. Arantzazuko Frantziskotarrak eta Bizkaiko Foru Aldundia.....	73
V. Euskaltzaindiaren organigrama	75
V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	76
V.2. Hitzarmenak	78
V.3. Batzordeen zerrenda	79
V.4. Helbideak / Aurkitegia.....	84

AURKEZPENA

Euskaltzaindiaren historian badira ohiko lanean, distira berezirik gabe, behin eta berriro errepikatzen diren gertakariak: Osoko kideen hileroko batzarrak, Zuzendaritzak hilean bi aldiz egin ohi dituen bilerak, eta batzorde eta egitasmo zahar eta berrien ohiko bilkurak, adibidez, aspaldidanik arautuak, eta horiek, eguneroko bulego-lan administratiboarekin, jendearen eskari eta galderei erantzuteko ziurtagiri- eta informazio-ematearekin batera, egunean-eguneango jarduna egituratzen dute. Ohiko ekitaldi txiki eta errepikatu horiek, beren itxurazko arrunckeria gora behera, edozein akademiaren zereginen ardatz nagusia izaten dira. Horien ondorioz, hizkuntzari buruzko ikerketak, erabakiak, gomendioak, proposamenak etab. plazaratzen dira, gure gizartearengandik zuzenik edo zeharka jasoriko kezka, zalantza eta jakin-minei erantzuteko asmoz gauzatuak.

Aipaturiko horiek funtsezkoenak izanik ere, beste batzuk izaten dira, ordea, beren ezohikotasunean, gure gizartean arreta erakartzen dutenak: noizean behingo ekitaldiak, ospakizun bakanak, betikoak ez bezalako bilerak eta agerraldiak. Horiek garai eta aldi berezietan gertatzen dira, efemeride eta urteurrenetan adibidez, eta joan den urtean ez ditugu falta izan. Aipa ditzagun, beraz, horrelako batzorde eta egitasmo berri batzuk: Zientzia eta Teknika hiztegia, Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpora, Lexikoaren Behatokia; Joanes Etxeberri (Euskararen Historia Soziala ikertzeko) eta Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) batzordea.

Bestetik, urtarrilaren 25ean Euskaltzaindiaren egoitzan Jean Haritschelhar euskaltzainburu-ohiaren omenezko ekitaldia egin zen.

Apirilaren 16an Akademiaren egoitzan eginiko prentsaurrekoan Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak “Euskarazko Tesietarako Koldo Mitxelena Saria” aurkeztu zuten, Unibertsitateak euskarazko tesien alde sortua.

Bestalde, bi sarrera-hitzaldi izan genituen: bata maiatzaren 31an, Etxalekun, Sagrario Aleman andrearena; bestea Hendaian uztailearen 19an burutu zen, Aurelia Arkotxa euskaltzainarena, eta horrela bieci harrera eta ongi etorri formala eman zizkien Euskaltzaindiak.

Gure erakundearen fundazioaren laurogeita hamargarren urteurreneko ospakizunei hasiera emateko, Iruñeko Baluarteko Jauregian urriaren 6tik 10era Nazioarteko XVI. Biltzarra antolatu zen, “Pirinioetako hizkuntzak” gaitzat harturik. Jardunaldiak, Michael Metzeltin irakaslearen “Las lenguas de los Pirineos” hitzaldiarekin hasi zen, eta hurrengo egunetan “Historia eta dialektologia”, “Literatura”, “Hizkuntzak eta gizarteak” eta “Toponimia” gaiak jorratu ziren. Amaierako ekitaldia Henrike Knörr euskaltzain zenduaren In memoriam egin zen. Hertsiki akademikoak izan ziren jardueraz gainera, Nafarroako Ganbera-Koralaren musikaldia, Bernardo Atxagaren errezitaldia eta Aragoiko Grupo Val d’Echo eta Orquestina del Fabirol herri-kantarien jardunaldia eskaini ziren. Azaroaren 28an batzar berezia egin zen Zuzendaritzako karguak hautatzeko.

Azkenean bada ere, gogora dezagun *Plazaberri* aldizkari digitala Euskaltzaindiaren bloga bihurtu dela, Akademiaren jarduna hobeki gizarteratzeko ahalegin etengabea.

Xabier Kintana idazkariak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

2008ko ekintza nagusiak

2008. urtean zehar Euskaltzaindiak honako osoko bilkurak egin ditu:

Hila	Eguna	Tokia	Zer
Urtarrila	24 25	Egoitza	- Ageriko batzarra: Jean Haritschelharren omenez - Batzar arrunta
Otsaila	29	Egoitza	- Batzar arrunta
Apirila	4 25	Egoitza Donostia	- Batzar arrunta (martxoari zegokiona) - Batzar arrunta
Maiatza	30 31	Iruñea Etxaleku	- Batzar arrunta - Sagrario Alemanen sarrera-hitzaldia
Ekaina	27	Egoitza	Batzar arrunta
Uztaila	18 19	Hendaia	- Batzar arrunta - Aurelia Arkotxaren sarrera-hitzaldia
Iraila	26	Egoitza	Batzar arrunta
Urria	6-10 31	Iruñean Donostia	- Batzar berezia eta Nazioarteko XVI. Biltzarra - Batzar arrunta
Azaroa	28	Egoitza	- Batzar arrunta - Batzar berezia: Zuzendaritzako karguen hautaketa
Abendua	19	Pasaia	Batzar arrunta

Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari omenaldia

Urtarrilaren 24an, egoitzan, euskaltzainburu izan den Jean Haritschelharri omenaldia egin dio Euskaltzaindiak.

Ekitaldian Euskal Herri osoko erakundetako ordezkariak izan dira. Beñat Oihartzabalek, hasteko, Jean Haritschelharri buruzko zertzeladak eman ditu. Iparraldean Euskaltzaindia ezagutarazteko egin duen lana, Iparraldeko herri aginteak Euskaltzaindiarengana hurbiltzeko egin dituen ahaleginak eta lortu diren emaitzak azpimarratu ditu.

Omenaldi honen harira, *Iker-21* "Jean Haritschelharri Omenaldia" deritzon liburua prestatu du Euskaltzaindiak, Jose Luis Lizundia eta Beñat Oihartzabalen ardurapean. Liburu honetan 33 ikertzailek hartu dute parte.

Jose Luis Lizundiak, Euskaltzaindiak dituen argitalpen-bildumak aipatu ditu eta Haritschelhar euskaltzainburu izan zen garaian argitaratu ziren liburuen berri eman. Bestetik, Villasanterekin batera Akademiaren berriztatzaile izan dela Jean Haritschelhar aipatu du Andres Urrutia euskaltzainburuak, Euskaltzaindia garai berrietako premietara egokituz.

Ondoren, *Jean Haritschelhar-i omenaldia* izeneko liburua eman dio buru ohiari eta, *Casa bombardeada* izena duen Remigio Mendibururen eskultura.



2008ko urtarrilaren 24an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Jean Haritschelhar.

Jean Haritschelharrek, bertaratu diren guztiak agurtzearekin batera, omenaldi liburuan parte hartu duten ikertzaileei eskerrak eman dizkie.

“Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria”

Apirilaren 16an, Euskaltzaindiaren egoitzan eginiko prentsaurrekoan, “Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria” aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Sari hau EHUK sortu du, euskarazko ikerketa bultzatzeko eta sustatzeko asmoz eta bi urterik behin deituko da Euskaltzaindiarekin batera.



2008ko apirilaren 16an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Ludger Mees, Iñaki Pérez, Andres Urrutia eta Joseba Lakarra

Sariak bost jakintza-arlo nagusi hartuko ditu: Zientzia Esperimentalak, Ikasketa Teknikoak, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak, eta Giza Zientziak.

Aurkezpenarekin batera, Koldo Mitxelena zenaren lanen erakusketa bat ikusgai jarri du Euskaltzaindiak egoitzako aretoan. Erakusketa horrek hiru atal nagusi izan ditu:

- Mitxelenaren lan pertsonalak.
- Euskararen batasunari buruzkoak (horien artean, Arantzazuko Biltzarraren berri ematen duen Mitxelenak berak eskuz idatzitako akta).
- *Orotariko Euskal Hiztegia*-rekiko atala.

Euskera agerkaria berriztatu

Euskaltzaindiak *Euskera* Akademiaren agerkari ofiziala berriztatu du. Hemendik aurrera hiru zenbaki argitaratuko dira urtero. Horietatik bik -lehenak eta hirugarrenak-Akademiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko dituzte. Bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta liburu aipamenak jasoko ditu beren-beregi. Euskaltzaindiak eduki berriak eskaini nahi ditu *Euskeran*. Horiek horrela, euskaltzainek eta Euskaltzaindiak antolaturiko ekitaldietan parte hartzen dutenek ez ezik, euskalgintzan dihardutenek ere *Euskeran* argitaratu ahal izango dituzte beren lanak.

Leturiaren egunkari ezkutua

Maiatzaren 23an, *Leturiaren egunkari ezkutua eleberriaren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan* izeneko argitalpena aurkeztu du Euskaltzaindiak, Donostian. Argitalpen hori, *Euskera*-ren etapa berriaren lehen zenbakia da, eta haren bitartez *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenaren karietara, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" omendu nahi izan du Akademiak.



2008ko maiatzaren 23an, Donostian, Doctor Camino liburutegian; ezkerretik eskuinera: Joseba Alvarez Enparantza "Txillardegi", Andres Urrutia eta Jean Haritschelhar.

Henrike Knörren hutsarteak

Henrike Knörren heriotzaren ondoren, Euskaltzaindiak honako izendapenak egin ditu:

- Arabako ordezkaria: Manu Ruiz Urrestarazu
- Gasteizko Toponimia egitasmoaren zuzendaria: Jose Luis Lizundia.

Bestalde, maiatzaren 30eko osoko batzarrean aldarrikatu da Henrike Knörren hutsarteak. Uztailaren 18koan, Blanca Urgell eta Patxi Uribarren proposatuak izan dira eta, irailaren 26an, Patxi Uribarren Leturiaga euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak.

Euskaltzaindiaren Adierazpena

“Frantses Hizkuntzaren Akademiak 2008ko ekainaren 12an egindako adierazpena dela-eta:

Frantziako Konstituzioa aldatzeko xedea eztabaidatu da berrikitan Frantziako Parlamentuan. Horren ildotan, proposamen bat egin da, Frantziako eskualde hizkuntzei nolabaiteko ezagutza emateko, hizkuntza horiek Frantziako ondarearen parte direla Konstituzioan agerraraziz. Lehenik Diputatu Ganberak onartu du aldaketa proposamen hori; ondoren, haatik, Senatuak kenarazi du, gai horren inguruan gizartearen eztabaida bizia sortzen zelarik.

Frantses Akademia bereziki holako aldaketa baten aurka goraki mintzatu da, akademiakideek aho batez onartu adierazpen batean galdatzen zutelarik aldaketa proposamen hori ken zedin, Frantziako Konstituzioan hizkuntza horiei aipamen den mendrenik ez egiteko, edo ezagutza formalik ez emateko.

Testuinguru horretan, eta Konstituzioaren aldaketa oraino eztabaidatzen delarik, Euskaltzaindiak hauxe jakinarazten du:

1. Euskara euskaldunen hizkuntza da, ez baitezpada hizkuntza bakarra, aspaldi baita euskaldunek eleaniztasunaren behararen eta haren onuren berri dakitela, bai ordea berezko hizkuntza. Mintzaira horren bidez izendatzen dugu geure burua, haren bidez, halaber, geure herria.

2. Horiek hola, euskara historikoki estatu eta administrazio eremu desberdinetan mintzatua izan da, eta ondorioz beti legezko egoera desberdinetan bizi izana da. Zuzenbide egoera desberdintasun horren gainetik, Euskaltzaindiak aspaldi jakinarazi du euskarari zor zaiola, mendez mende aspaldiko denboretan mintzatua izan den herrialde guztietan, legearen ezagutza eta geriza. Hain zuzen ere, 1994an, bere 75. urtemugakari, Miarritzen egin zuen adierazpenean galdatu zuen Frantziako estatuan ere euskarak izan zezan dagozkion hiru herrialde historikoetan ko-ofizialtasuna; (ikus adierazpena ondoko dokumentuan)

3. Egun, berriz ere, printzipio beretan finkaturik, biziro eskatzen dugu Frantziako estatuan ere euskarak izan dezan estatuaren legezko antolamenduan zor zaion ezagutza bete, nazioarteko hitzarmen guztietan, bereziki Europakoetan, eskatua den bezala.

4. Deitoratzen dugu, frantses mintzairaren kasuan legearen babesaren beharraz horren kezkatua den Frantses Akademia, hain bortizki eta itsuski, Frantziako beste hizkuntza anitzez ahulagoen kasuan Frantziako Konstituzioan aipamen sinboliko den gutieneko baten egitearen aurka altxatzea.

5. Euskaltzaindiak jakinarazten du gerturik dagoela, orain arte izan den bezala, herri agintari eta erakunde publiko guztiekin lan egiteko euskarak izan dezan ezagutza ofiziala Frantziako herrialde euskaldunetan.

Euskaltzaindiak aho batez onartua, Bilbon, 2008ko ekainaren 27an.”

Zuzendaritzako kargudunak hautatzea

Azaroaren 28an egin den batzar berezian, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kargudunak hautatu dira, hurrengo lau urteetarako. Hauek osatuko dute Euskaltzaindiaren Zuzendaritza:

- Euskaltzainburua: Andres Urrutia
- Buruordea: Beñat Oihartzabal
- Idazkaria: Xabier Kintana
- Diruzaina: Jose Luis Lizundia
- Iker sailburua: Andoni Sagarna
- Jagon sailburua: Andres Iñigo



2008ko azaroaren 28an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Andoni Sagarna, Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana, Andres Urrutia, Beñat Oihartzabal eta Andres Iñigo.

***Henrike Knörr* izena Gasteizko ordezkartzaren aretoari**

Euskaltzaindiarekin batera Gasteizko egoitza erabiltzen duten Eusko Ikaskuntzak eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteak, bertan kokatua dagoen aretoari *Henrike Knörr* izena jartzea erabaki dute. Plaka jartzea abenduaren 2an egin da. Arabako ordezkaria izan den Henrike Knörr-i eginiko omenaldian mintzatu dira M^a Nieves Urrutia Eusko Ikaskuntzaren izenean, Fernando Salazar Rodriguez de Mendarozketa Euskalerriko Adiskideen Elkartearen izenean eta Manu Ruiz Urrestarazu Euskaltzaindiaren ordezkari. Plaka agerian jartzea Txari Santiago, Knörren alargunak egin du.



2008ko abenduaren 2an, Gasteizen, Euskaltzaindiaren ordezkartzan; ezkerretik eskuinera: Fernando Salazar Rodriguez de Mendarozketa, M^a Nieves Urrutia eta Manu Ruiz Urrestarazu.

I.2.- BATZAR BEREZIAK

1.2.1. Sarrera ekitaldiak

Sagrario Aleman

Maiatzaren 31n egin da Sagrario Aleman euskaltzainaren sarrera ekitaldia, Etxalekun, *Dorrotoa* izeneko etxean. Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du eta ondoren, Xabier Kintana idazkariak ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu. Maria Antonia Iribarren Imozko alkate andreak ongi etorria eman die bertaratu direnei, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu. Andoni Sagarna eta Patxi Zabaleta euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Sagrario Aleman *Berdetik horira* izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzeko.

Euskaltzain berriak bi ataletan banatu du sarrera-hitzaldia: batetik, hizkuntzaren transmisioa eta, bestetik, helduen euskalduntze-lana, bere bizitza zeharo markatu duten arloak.

Erantzuna, Patxi Salaberrik eman dio, *Gorritik horira* hitzaldiarekin eta Sagrario Alemanen ekarpena biziki garrantzizkoa dela azpimarratu du bere hitzaldian.

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta domina eman dizkio Sagrario Alemani. Ondoren, banan-banan euskaltzain guztiek zoriondu dute.



2008ko maiatzaren 31n, Etxalekun, *Dorrotoa* etxean; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Sagrario Aleman.

Azkenik, Jose Maria Facenda Etxalekuko kontzejuburuak ekitaldiari bukaera eman dio, bertaratu direnak agurtuz eta *Dorrotoa* etxearen jabeei eskerrak emanez.

Aurelia Arkotxa

Uztailaren 19an, Hendaian, Herriko Etxean egin da Aurelia Arkotxaren sarrera-ekitaldia. Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren aurkezpen orokorra egin du. Xabier Kintana idazkariak, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu eta Jean-Baptiste Sallaberry auzapezak ekitaldira etorritako guztiak agurtu ditu. Ondoren Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak esan ditu.



2008ko uztailaren 19an, Hendaiaiko Herriko Etxean; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Aurelia Arkotxa.

Sagrario Aleman eta Jean-Louis Davant euskaltzainek lagunduta, Hendaiaiko Herriko Etxeko batzar aretoan sartu da Aurelia Arkotxa “*Bazterrez*” izeneko sarrera-hitzaldia irakurtzera. Euskaltzain oso berriak bidaia lerrotu du bere sarrera-hitzaldian, bai espazioan, baita denboran ere, eta pasealdi bat proposatu die entzuleei, Bidasoaren hegiari jarraikiz itsaso handiaren ertzetaraino, hiriko pasarte historiko nagusiak eta bertan izandako pertsonaiak aipatuz.

Beñat Oihartzabalek, Joanes Etxeberri Ziburukoari idatzitako gutun baten bidez erantzun dio. Gutun horretan Oihartzabalek euskaltzain berria aurkeztu dio lapurtar lehen poeta ezaguna izan zenari, Arkotxak euskalgintzan, irakasle eta poeta gisa egin duen bidea zehaztuz.

Hitzaldien amaieran, Euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman dizkio Aurelia Arkotxari, eta euskaltzain guztiak banan-banan zoriondu dute euskaltzain berria.

I.2.2. EUSKALTZAINDIAREN 90. urteurrena

XVI. Nazioarteko Biltzarra: Pirinietako hizkuntzak

Iruñean egin da, 2008ko urriaren 6tik 10era, Euskaltzaindiaren XVI. Nazioarteko Biltzarra, Baluarte jauregian. Hau da gauzatu den egitaraua:

- Urriaren 6an: Hasiera ekitaldia. Aurkezpena eta agintarien agurra: Andres Urrutia eta Carlos Pérez-Nievas; sarrera-hitzaldia Michael Metzeltin-ek eman du: *Las lenguas de los Pirineos* eta, azkenik, Musika emanaldia, Coral de Cámara de Navarra-k eskainia.
- Urriaren 7an: Historia eta dialektologia
- Urriaren 8an: Literatura
- Urriaren 9an: Hizkuntzak eta gizarteak
- Urriaren 10ean: Toponimia eta *In memoriam Henrike Knörr*.



2008ko urriaren 10ean, Iruñeko Baluarte jauregian; ezkerretik eskuinera: Manuel Castán, Joan Martí i Castell, Andres Urrutia, Carlos Pérez-Nievas eta David Grosclaude.

I. 3. KANPOKO JARDUERAK

Sarako Euskal Idazleen Biltzarrean

Martxoaren 24an, Pazko Astelehenez, Sarako Idazleen Biltzarra egin da herriko polikiroldegian, Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatuz. Aurten, Euskaltzaindiak bi liburu berri aurkeztu ditu: *Pierre Broussain. Sa contribution aux etudes basques*, Pierre Charrittonen idatzia eta, Pierre Lhanderen *Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*, Jon Casenavek paratua. Aurkezpenean Andres Urrutia, Jean Haritschelhar, Jon Casenave eta Pierre Charritton izan dira. Bi liburu horiek Euskaltzaindiaren "Euskaltzainak" bildumaren 2. eta 3. zenbakiak dira.

Sarako Biltzarrak bi urtean behin bi idazle omentzen ditu, eta aurten Txomin Peillen euskaltzain emeritua eta Xipri Arbelbide euskaltzain urgazlea izan dira omenduak.

Commission Nationale de Toponymie (CNT)

Uztailaren 3an Commission Nationale de Toponymie izeneko erakundea Bordelen bildu da. Euskaltzainditik Andres Iñigo, Mikel Gorrotxategi, Patxi Salaberri eta Céline Mounole izan dira. Espainiako IGNeok (Instituto Geográfico Nacional) eta Eusko Jaurlaritzako kideak ere izan dira bileran. CNT-k UNESCOrekin "ondare kultural ez materialaren begiratzearen alde" sinatua duen hitzarmena betez, euskal toponimoak ofizialki ezagutaraztea da egitasmoaren xedea.

Bilboko Udaletxean

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Bilboko Udalak Euskaltzaindia omendu du, Akademiaren sorreraren 90. urteurrenean. Omenaldian, Iñaki Azkuna alkateak Akademiari gorazarre-hitzak eskaini dizkio eta diplomak banatu ditu.



2008ko abenduaren 3an, Bilboko Udaletxean.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

Orain dela 50 urte gertatu bezala, abenduaren 20an, Barakaldon dagoen BEC erakustazokan jokatu den Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalean Euskaltzaindia ere izan da. Akademiaren izenean, Adolfo Arejita euskaltzain osoak saria eman dio Unai Iturriaga aurtengo txapeldunordeari.



2008ko abenduaren 20an, BECen; ezkerretik eskuinera: Onintza Enbeita eta Adolfo Arejita.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, bestalde, Valentin Lakaren eskultura bat eman dio Euskaltzaindiari, Bizkaiko Txapelketaren 50. urteurrenean. Bertan "*Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2008. 1958-2008*" irakur daiteke. Izan ere, orain dela mende erdi, 1958ko abuztuan, Bizkaiko Lehen Bertsolari Txapelketa egin zen, Euskaltzaindiak antolatutik. Alfontso Irigoien eta Nazario Oleaga euskaltzainak ibili ziren orduan antolakuntza lanetan.

Iruñean, Nafarroa Oinez festa dela eta

Nafarroa Oinez festarekin bat egin du Euskaltzaindiak eta irailaren 18an, Iruñean, zenbait ekitaldi egin ditu. Sustapen batzordea Jaso Ikastolan bildu da eta, bi liburu aurkeztu dira: *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* eta *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*.



2008ko irailaren 18an, Iruñeko Jaso Ikastolan; ezkerretik eskuinera: Unai Arellano eta Aingeru Epaltza

XII. Jagon Jardunaldiak ere burutu dira Akademiaren Corpus batzordeak antolatuak. Azkenik, ageriko ekitaldia egin dute Akademiak eta Jaso Ikastolak. Javier Baztarrika ikastolako presidentea, Unai Arellano hezkuntza zuzendaria eta Andres Urrutia euskaltzainburua mintzatu dira. Ekitaldiaren barnean, Aingeru Epaltza idazle eta euskaltzain urgazleak “*Nola konspirazioa garaitu genuen (Nafarroako euskal literatura garaikidea)*” izeneko hitzaldia eman du.

Esteban Adoainen bigarren mendeurrena

Urriaren 11n, Nafarroako Urraulgoitin, Aita Esteban Adoainen jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatu da, bertako Udalaren eraginez. Udalak gonbidatuta, Sagrario Aleman izan da Euskaltzaindiaren izenean, eta hitzaldia eman du.

Euskara batuaren 40. uteurrenean

Urriaren 24an, Udako Euskal Unibertsitateak 2008-09 ikasturteari hasiera eman dio Eibarren. Aurten euskara batuaren 40. urteurrena dela eta, gai hori izan du gogoan UEUK, eta Xabier Kintana euskaltzainak eman du hitzaldia gai horretaz.

Euskaltzaindia EiTBn

Urriaren 17an EiTBren egoitzan izan da Euskaltzaindia, EiTBk gonbidatuta. Bertan, Exonomastika batzordeak hileko bilera egin du. Ondoren, HIKEA aplikazioa (hizkuntza kontsulta-zerbitzua) aurkeztu dio EiTBk Euskaltzaindiari. Han izan dira, Zuzendaritzakoez gain, Euskaltzaindian arlo horretan aritzen diren batzorde-idazkariak ere. Ondoren EiTBren egoitza bisitatu dute eta, bukatzeko, Zuzendaritzak arratsaldean ohiko bilera egin du.



2008ko urriaren 17an, Bilbon, EiTBren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Aduriz, Jesus Mari Makatzaga, Juan Jose Zearreta, Julian Beloki, Xabier Kintana, Bingen Zupiria, Beñat Oihartzabal, Mikel Gorrotxategi, Joxe Ramon Zubimendi, Andres Iñigo, Odile Kruzeta eta Jose Luis Lizundia.

I.4. HERIOTZAK

Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlea

Martxoaren 8an hil da, Donostian, Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlea, 79 urte zituela. Euskaltzaindiak 1979ko abenduaren 20an euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Jose Ignacio Telletxea Idigoras Donostian sortu zen, 1928ko apirilaren 15ean. Erromako Unibertsitate Gregorianoan Eliz historian, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutensean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Teologian doktorea zen. Gasteizko Teologia Fakultatean irakasle izan zen, bai eta Salamancako Elizaren Unibertsitatean ere. Salamancan jubilatzen zen. Fray Bartolome Karrantzakoaren lana zabaldu zuen, baita Catalina Erauso, Manuel Larramendi, Molinos, Miguel de Unamuno eta beste hainbat pertsonaia historikoren ere. Loiolako Inazioaren biografia da, ezberrik gabe, bere lanik ezagun eta zabalduena: *Ignacio de Loyola, solo y a pie*.

Jacques Etcheverry euskaltzain urgazlea

Martxoaren 22an hil da, Baionan, Jacques Etcheverry euskaltzain urgazlea, 86 urte zituela. 1965eko azaroaren 24an, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. Jacques Isidro Etcheverry Unanue Donibane Lohizunen (Lapurdi) jaio zen, 1921eko abenduaren 16an. Pariseko Sorbona Unibertsitatean Filosofia eta Psikosoziologia ikasketak egin zituen.

Donostiako Herri Irratiarekin egin zituen kolaborazioak, *Basque Eclair* egunkarian ere lan egin zuen Baionan, eta *Activités en Pays Basque* Baionako Merkataritza Ganberaren aldizkariaren zuzendaria izan zen. *Gure Herria* aldizkarian artikuluak argitaratu zituen. Radio France-ren “Kronikak” izeneko atala ere egin zuen.

Baionako Euskal Museoan euskara klaseak eman zituen, baita Baionako Lizeoan ere. Etcheverry izan da, Frantziako Administrazioak ordainduta, euskarazko eskolak eman dituen Iparraldeko lehen irakaslea, batxilergoa barne. Lizeoaz gain, Elizaren ardurapeko ikastetxeetan ere irakasle izan zen. Jacques Etcheverryk euskalduntze zein alfabetatze eskolak eman zituen bere bizitzan zehar. *Lapurdi itsas-hegia* liburua argitaratu zuen, 1977an.

Henrike Knörr euskaltzain osoa

Apirilaren 30ean hil da, Gasteizen, Henrike Knörr Borràs, 61 urte zituela. Knörr Euskaltzaindiaren Iker sailburua zen. Henrike Knörr Borràs Tarragonan jaio zen, 1947ko martxoaren 2an. Zazpi urte zituela Gasteizera etorri zen bizitzera. Filosofia eta Letretan lizentziatu zen 1981ean, Madrileko Complutense Unibertsitatean, Filosofia Hutsaren sailean. Koldo Mitxelenaren laguntzaile izan zen Arabako Ikastetxe Unibertsitarioan. Gero, Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean irakasle izendatu zuten eta horretan jardun du hil arte. 1987an, Euskal Filologiako Doktore titulua eskuratu zuen, Maurice Harriet apaizaren hiztegi argitaragabeari buruzko tesiarekin, Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. Euskal Filologiako katedraduna zen, 1995az geroztik.

Euskaltzaindiak 1975ean hautatu zuen euskaltzain urgazle eta bi urteren buruan, 1977ko otsailaren 26an, euskaltzain oso, Antonio Arrueren ordean. Euskaltzaindiaren barne kargu batzuk bete ditu, hala nola, Euskaltzaindikoko buruordea izan da 1995etik 2004ra bitartean; diruzain, Jagon sailburu eta idazkaria (1992-1995) eta Onomastika batzordeburua

(1984-2001); 2004ko abenduaren 17tik, Iker Sailburua zen; bestalde, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria izan zen, bi epealditan.

Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzain osoa

Urriaren 13an, Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzain oso emeritua hil da, Beloken, 88 urte zituela. Xabier Diharce "Iratzeder" Donibane Lohizunen jaio zen, 1920ko urtarrilaren 4an. Uztaritzeko eta Baionako Seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. Hogeita bat urte zituela, Belokeko beneditarren komentura joan zen. Priore izan zen, lehenbizikoz, eta 1972an abade izendatu zuten. Hamabost urtez izan zen Belokeko abade. Ondoren, 67 urte zituela, 1987an, Afrikara joan zen.

1953ko urtarrilaren 1ean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1962ko uztailaren 27an, berriz, euskaltzain oso, J. Elissalderen orde. 1963an, Beloken, sarrera hitzaldia egin zuen, "*Belokeko euskal bidea*" gaiari buruz. Kanta askoren letrak prestatu zituen, lehenik Gabriel Lertxundi beneditarrarekin batera -*Kantikak* liburua, horren emaitza- eta berak bakarrik geroago. Urteaga, Garbizu, Olaizola eta Bengoa musikariek musika jarri zizkieten. Aita Donostiak musikaturikoak ere badira.

Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzaina

Azaroaren 6an, Karmelo Etxenagusia hil da, Bilbon, 76 urte zituela. Ohorezko euskaltzaina zen, 1998ko apirilaren 24an izendatua. Karmelo Etxenagusia Uribe Iurretan jaio zen, 1932ko apirilaren 24an. Gordexola, Artea eta Gasteizko seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. 1955ean apaiztu zen eta segidan Seminarioko irakasle izendatu zuten. Geroago Comillas-eko Seminarioan ikasi zuen Eliz Zuzenbidea. Ondoren, Erroman, Teologia eta Eliz Zuzenbidea ikasten jarraitu zuen.

Karmelo Etxenagusiaren literaturarekiko zaletasuna handia izan zen eta hala erakutsi zuen beti. Euskal literaturari buruzko antologia batzuk idatzi zituen, besteak beste *Euskal Idazleak bizkaieraz. Antologia. Testu azterketak*. Ariketak, Jon Kortazar eta Aitor Etxeberriaren laguntzaz egina, eta *Iparraldeko Euskal Idazleak. Antologia*. 2003an, *Euskerea nire bizitzan* liburua kaleratu zuen.

Mikel Zaraterekin batera, Derioko Udako Euskal Ikastaroen sortzaile izan zen, 1969an. Aurrerantzean, Derioko Udako Ikastarotik sortu zen Labayru Ikastegiaren bultzatzaile handienetarikoa ere izan zen. 1995eko irailaren 8an, 63 urte zituela, Bilboko gotzain laguntzaile izendatu zuten.

I. 5. HILBERRI-TXOSTENAK

Otsailaren 29an, Bilbon, egoitzan, ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak. Bertan, omenezko hilberri-txosten hauek irakurri dira:



2008ko otsailaren 29an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia, Henrike Knörr eta Patxi Zabaleta.

Jose Manuel Lasarte

Euskaltzain urgazlea (1927-2007). Omenezko txostena Patxi Zabaleta euskaltzain osoak egin du.

Jesus Atxa

Ohorezko euskaltzaina (1920-2007). Omenezko txostena Jose Luis Lizundia euskaltzain osoak egin du.

I. 6. ORDEZKAPENAK

- Urtarrilaren 10ean, Donostiako Udalaren Euskararen Aholku Batzordearen bilera egin da. Ana Toledo joan da Akademiaren izenean.
- Urtarrilaren 19an, Donostiako Udalak 2008ko Herritar Merezimendua aitortzeko antolatu duen sari-ematean Andoni Sagarna izan da Euskaltzaindiaren izenean. Bost sarituen artean Miren Lourdes Oñederra euskaltzain donostiarra egon da.
- Urtarrilaren 23an, Amasan, Antonio Zavala euskaltzaina omendu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hauek izan dira Euskaltzaindiaren izenean: Andres Urrutia, Adolfo Arejita, Juanjo Zearreta, Jose Mari Iriondo eta Jabier Kaltzakorta.
- Urtarrilaren 29an, Bilboko Ercilla kalean Manolo Valdés-en eskulturak jarri dira, La Caixa-ren ekimenez. Euskaltzainburua joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Otsailaren 3an, Arabako Langraizko kartzelan, Francoren garaian sexu-joeragatik zigortuen alde egin den ekitaldira Henrike Knörr joan da.

- Otsailaren 6an, “Euskadi” Gastronomía Saria eman du Euskal Gastronomía Akademiak. Adolfo Arejita joan da Akademiaren izenean.
- Otsailaren 7an, Bilbon, Alderdi Sozialistak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Jose Luis Lizundia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Otsailaren 8an, Bilbon, Eusko Alderdi Jeltzaleak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Andres Urrutia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Otsailaren 13an, Bilbon, Alderdi Popularrak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Andres Urrutia joan da.
- Otsailaren 19an, Bilbon, Eusko Alkartasunak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Andres Urrutia joan da.
- Otsailaren 24an, Real Academia Española-n Salvador Gutiérrez Ordoñezen sarrera ekitaldia izan da eta Henrike Knörr joan da.
- Otsailaren 28an, *Surrealismoaren gauzak* erakusketa inauguratu da Guggenheim Museoan, eta Adolfo Arejita joan da.
- Martxoaren 3an, Eusko Alderdi Jeltzaleak Donostian hartu ditu Gipuzkoako gizartearen ordezkariak. Ana Toledo joan da.
- Martxoaren 14an, “Santimamiñe, milaka urteko pasaia” kultur proiektuaren aurkezpena egin du Bizkaiko Foru Aldundiak Kortezubiko Basondo auzoan. Jose Antonio Arana Martija joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Martxoaren 18an, Gasteizko Artium Museoan “Eskuratu berriak” erakusketa inauguratu da. Henrike Knörr joan da Akademiaren izenean.
- Martxoaren 30ean, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria Miranda Argan izan da, bertako Udalak Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazle eta Mirandako Seme Kuttuna zenaren alde ateratako mezan.
- Apirilaren 17an, Bilbon, Izaskun Bilbao Eusko Legebiltzarreko buruak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Jose Luis Lizundia joan da.
- Apirilaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiak “Gipuzkoa: Partehartzea landuz” izeneko ekitaldia antolatu du. Ana Toledo joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Apirilaren 21ean, Bilbon, Jaime Oraá Deustuko errektoreak hitzaldia eman du, Forum Europa-k antolaturik. Andres Urrutia joan da.
- Apirilaren 16an, “Remigio Mendibururen Gernika” erakusketa ireki da, Gernikako Euskal Herria Museoan. Jose Antonio Arana Martija joan da.
- Apirilaren 28an, San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak eta Arabako Domina emate-ekitaldira Manu Ruiz Urrestarazu joan da.
- Maiatzaren 5ean, jardunaldia egin du IVAPek, bere 25. urteurrena ospatzeko. Jardunaldia Donostian izan da, eta Jose Luis Lizundia joan da.
- Maiatzaren 6an, Euskalerria Irratiak antolatzen duen 'Larreko' saria erabakitze bilerara Andres Iñigo joan da.
- Maiatzaren 8an, San Fermin Ikastolak Jesus Atxaren omenez egin duen ekitaldira Patxi Salaberri joan da.
- Maiatzaren 8an, Miguel de Unamuno Saiakera Lehiaketaren IX. edizioko sari-banaketa egin da Bilboko Udaletxean. Juan Jose Zearreta kudeatzailea joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 9 eta 10ean, Mendebalde Kultura Alkarteak XII. Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiaren aretoan. Euskaltzainburua izan da hasierako ekitaldian, Akademiaren ordezkari.
- Maiatzaren 10ean, Tafallako Euskararen Eguneko inaugurazio ekitaldira Patxi

Salaberri joan da.

- Maiatzaren 22an, Bilboko Bidebarrieta liburutegian, Andoni Sagarnak hitzaldia eman du, euskara eta teknologia berriez. Euskaltzainburua joan da.
- Maiatzaren 17 eta 18an, Museoen Nazioarteko Eguna zela-eta Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoak antolatu dituen ekitaldietan Jose Antonio Arana Martijak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Maiatzaren 18an, Donostiako Kursaal-en, “Terrorismoaren biktimei elkartasuna adierazteko” Eusko Jaurlaritzak antolatu duen ekitaldira Ana Toledo joan da.
- Maiatzaren 19an, Joan Mari Torrealdai izan da Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusi ohiaren hiletan, Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 24an, *Erronkariko Uskararen Eguna*, Sagrario Aleman joan da.
- Maiatzaren 25ean, IBILALDIA ospatu da Zornotzan, eta Euskaltzainburua joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Maiatzaren 26an, Guggenheim Museoan, “Juan Muñoz: atzera begirakoa” erakusketaren inaugurazioa egin da eta Adolfo Arejita joan da.
- Maiatzaren 27an, Arrasaten, aurtengo Euskaldun Unibertsala sariaren epaimahaia bildu da, eta Andres Iñigo izan da Henrike Knörren ordezkaria.
- Ekainaren 3an, Bilboko Euskaldunan, Osakidetzaren XXV. urtemuga ospatu da eta Adolfo Arejita joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 4an, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian, 2008ko Ixaak Lopez-Mendizabal eta Migel Altzo sariak eman dira, eta Manu Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkaria joan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 5ean, Iruñeko Euskalerria Irratia elkarteak antolatzen duen 'Larreko' saria Xanti Begiristaini eman diote. Euskaltzain hauek ordezkatu dute Akademia: Sagrario Aleman, Andres Iñigo eta Patxi Zabaletak.
- Ekainaren 5ean, Bilbon, Indautxuko “El Carmen” aretoan, Bizkaiko Umeen eta Gaztetxoen Bertsolari Txapelketa ospatu da, eta Abel Muniategi euskaltzain urgazle eta Herri Literatura batzordekidea joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 7an, Irujo Etxea Elkarteak “VIII. Manuel Irujo” saria Benito Lertxundiri eman dio, Lizarran, eta Andres Iñigo joan da.
- Ekainaren 12an, Donostiako Udalaren Euskararen Aholku Batzordearen bilera egin da. Ana Toledo joan da.
- Ekainaren 13an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Pedro Migel Etxenike Landiribar 'Honoris Causa' doktore izendatzeko ospatu duen ekitaldira Andres Iñigo joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 13an, Euskalduna Jauregian Bilbao Orkestra Sinfonikoak eman duen denboraldi-amaierako kontzertura Euskaltzainburua joan da.
- Ekainaren 15ean, “Araba euskaraz 08” ospatu da Bastidan, eta Manu Ruiz Urrestarazu joan da Akademiaren izenean.
- Ekainaren 18an, IVAPen XXV. urteurrena ospatzeko Gasteizko Artium Museoan egin den ekitaldira Diruzaina joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 18an, Donostian, Tabakalera, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak, Adegik, Merkataritza Ganberak eta Mondragon Korporazioak *Gipuzkoa aurrera* lantaldea aurkeztu dute, eta Ana Toledo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Ekainaren 18an, Gernikako Euskal Herria Museoan Sonia Ruedaren “Lotsaizunaren harresiak” erakusketaren inaugurazioa egin da, eta Jose Antonio Arana Martija izan da.

- Ekainaren 21ean, Donostiako Kursaal-en, *Berria*-ren 5. urteurrena ospatu da. Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria izan da.
- Ekainaren 24an, Donostian, Miramar Jauregian, XXVII. Uda Ikastaroak - XX. Europar Ikastaroen irekiera-ekitaldia egin da, eta Ana Toledo joan da.
- Ekainaren 24an, "Forum Europa" k antolatuta, Jose Luis Bilbao Bizkaiko Foru Diputatu Nagusiak hitzaldia eman du Bilbon. Diruzaina joan da.
- Ekainaren 30ean, UEUren 36. Udako Ikastaroen sarrera-ekitaldia egin da Eibarko Markeskoa jauregian eta Diruzaina joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Uztailaren 1ean, Bilbon, Ramon Rubial Fundazioak antolatuta, Cristina Garmendia Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia ministroak hitzaldia eman du. Euskaltzainburua joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Uztailaren 14an, Carlton hotelean, Frantziako Errepublikaren jai nazionala ospatu da. Gérard Guillonneau Bilbon dagoen Frantziako kontsulak Euskaltzaindiari egin dion gonbitari erantzunez, Adolfo Arejita joan da.
- Uztailaren 29an, Bizkaiko Foru Aldundiak, San Inazio dela eta Bizkaiko gizarteko ordezkariari egin dien harrera ofizialean Andres Urrutia izan da.
- Uztailaren 31n, Euzko Alderdi Jeltzaleak egin duen ospakizunean Andres Urrutia izan da.
- Irailaren 1 eta 5ean, Donostiako Musika Hamabostaldiko ekitaldietara Ana Toledo Gipuzkoako ordezkaria joan da, Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 4an, Bilboko Zabalguneko eraikinean "As nosas palabras, os nosos mundos" erakusketa ireki da, Galiziako Xuntak antolatuta. Xabier Kintana joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 11n, Zestoan egin den Ekaingo haitzuloaren erreplikaren inauguraziora Ana Toledo joan da.
- Urriaren 5ean, Iruran burutu den Kilometroak 2008-ren ekitaldietara Ana Toledo joan da.
- Irailaren 20an, Altsasuko ikastola berriaren inaugurazio ekitaldian, Andres Iñigo izan da.
- Irailaren 27an, Hendaian egin den Ikastolen VI. Batzarrean, Andoni Sagarna izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 29an, Bilbon Miguel de Unamunoren omenez egin den Lore-eskaintzara Idazkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 2an, Donostian, Patxi Lópezek aurkeztu duen "Euskara euskal politika berrian" ekitaldian Ana Toledo eta Andres Urrutia izan dira.
- Urriaren 3an, Bilboko Arte Eder Museoaren mendeurrena ospatu da eta Idazkaria joan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 5ean, Iruran, *Kilometroak 2008* Gipuzkoako ikastolen jaietan Ana Toledo izan da.
- Urriaren 7an, Euskal Herritar Unibertsalaren sari-banaketa egin da Gasteizen, eta Manu Urrestarazu joan da Akademiaren izenean.
- Urriaren 8an, Forum Europak antolatuta, hitzaldia eman du Bilbon Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak. Diruzaina joan da.
- Urriaren 9an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak antolatuta, Urte Judizialaren hasiera egin da, eta Abel Muniategi euskaltzain urgazlea joan da.
- Urriaren 11n, Adoingo Aita Estebanen jaiotzaren bigarren mendeurreneko ospakizunetan, Sagrario Aleman izan da Euskaltzaindiaren izenean.

- Urriaren 19an, Nafarroa Oinez 2008ko festaren hasiera-ekitaldian -Iruñean, Jaso ikastolan- Andres Iñigo eta Sagrario Aleman izan dira.
- Urriaren 20an, Donostian, Eusko Jaurlaritzak Jorge Oteizaren mendeurrena ospatzeko egin duen ekitaldian Ana Toledo izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 31n, Sabino Arana Fundazioaren XX. urteurrena ospatzeko egin den Sabino Arana Sarien kultur jaialdira Euskaltzainburua eta Idazkaria joan dira.
- Azaroaren 3an, Bilboko Arte Eder Museoan, Nestor Basterretxearen “Euskal kosmogonia”ren inaugurazioa egin da. Adolfo Arejita joan da.
- Azaroaren 4an, Eusko Ikaskuntzaren "Euskonews" aldizkari elektronikoak 10 urte betetzen dituela-eta Miramar Jauregian antolatu duten ekitaldi berezira Ana Toledo joan da.
- Azaroaren 6, 7 eta 8an, Academia Valenciana de la Lengua-k Nazioarteko Sinposioa egin du. Diruzaina joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Azaroaren 10ean, Guggenheim Museoan, BIKAIN, Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatzeko lehenengo ekitaldia egin da. Euskaltzainburua joan da.
- Azaroaren 11n, HABEren 25. urteurrena ospatu da Kursaal jauregian. Euskaltzaindiko Ana Toledo, Jose Luis Lizundia eta Andres Iñigo joan dira.
- Azaroaren 11n, Hamaika Telebista Bilbo-ren aurkezpen ekitaldia egin da Bilbon. Euskaltzainburua joan da Akademiaren izenean.
- Azaroaren 12an, Miramongo Parke Teknologikoan "Diariovasco.com" sarien III. edizioaren sari-banaketa egin da eta Ana Toledo joan da.
- Azaroaren 13an, Soziolinguistika Klusterrak, Eralan ikerketa-proiektuaren barruan “Lan munduan nola eragin erabileran?” gaiaz ikastaroa antolatu du. Xabier Kintana idazkaria joan da hasiera-ekitaldira.
- Azaroaren 13an, Basurtuko Ospitalea inauguratu zenean -1908ko azaroaren 13an- kaleratu zen *GACETA MÉDICA DEL NORTE*ren zenbaki bereziaren faksimilearen aurkezpena egin da Bilbon. Alberto Loizate joan da Akademiaren izenean.
- Azaroaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren egoitzan, 2008ko “Euskadi Literatura Sariak” eman dira, eta Manu Ruiz Urrestarazu joan da.
- Azaroaren 19an, Euskalduna Jauregian CONFEBASKen 25. urteurrena ospatu da. Xabier Kintana idazkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Azaroaren 19an eta 20an, Gasteizen dagoen Elorriagako Batzar-etxean, “Landatar herrien bilakaera eta garapena, Araba 2008” izenburupean egin diren jardunaldietara Manu Ruiz Urrestarazu joan da Akademiaren izenean.
- Azaroaren 20an, Bilboko Udaletxean “Blas de Otero – Bilboko Uria I. Saria” eman da. Euskaltzainburua joan da Erakundearen izenean.
- Azaroaren 20an, Euskalduna Jauregian, Sabino Arana Fundazioak antolaturik, “Think Gaur Euskadi 2020”ri buruzko mahai-ingurua egin da. Euskaltzainburua eta Kudeatzailea izan dira Euskaltzaindiaren izenean.
- Azaroaren 28an, Gasteizen egin den “Europar Batasuneko eremu urriko hizkuntzen babesa. Euskararen eta galesaren normalizazioa” izeneko jardunaldira Manu Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkaria joan da.
- Abenduaren 2an, Bilboko Frantses Eskolaren 75. urteurrena ospatu da. Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzaina joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 2an, Donostiako Udalaren Euskararen Aholku Batzordearen bileran Ana Toledo izan da Akademiaren izenean.
- Abenduaren 3an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta Gipuzkoako Foru

Aldundiak Jose Ignacio Telletxea Idigoras zenari egin dioten omenaldian Ana Toledo eta Andres Iñigo izan dira Euskaltzaindiaren izenean.

- Abenduaren 3an, “Lauaxeta Saria” eman du Bizkaiko Foru Aldundiak. Patxi Uribarren joan da Akademiaren izenean.
- Abenduaren 3an, Deustuko Unibertsitateak hil berri den Gotzon Garate omendu du, Euskararen Nazioarteko Egunean. Juan Manuel Etxebarria eta Jabier Kaltzakorta izan dira Euskaltzaindiaren ordezkariak ekitaldi horretan.
- Abenduaren 3an, Bilboko Udalak Euskaltzaindia omendu du. Andres Urrutia, Xabier Kintana, Adolfo Arejita, Jose Antonio Arana eta Patxi Uribarren euskaltzain osoak eta Euskaltzaindiaren egoitzako langileak izan dira.
- Abenduaren 3an, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak antolatu duen harrera-ekitaldira Jose Luis Lizundia eta Manu Ruiz Urrestarazu joan dira.
- Abenduaren 4an, Gaindegiak antolatuta, hitzaldia eman da “Euskal Herriaren dimentsio ekonomiko-soziala Europan” gaiaz, Donostian. Manu Ruiz Urrestarazu izan da Akademiaren izenean.
- Abenduaren 5ean, Durangoko Azokaren irekieran Diruzaina izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 6an, Gerediaga Elkarteak 2008ko Durangoko Argizaiola omen-saria Juan Zelaia Letamendi jaunari eman dioneko ekitaldian Diruzaina izan da.
- Abenduaren 12an, Bilbon, Ezker Batuak hitzaldia eman du Nueva Economía Fórum-ek antolatuta. Jose Luis Lizundia joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 16an, Pamiela argitaletxeak Iruñean antolatu duen 'Juan Zelaia Saria (2008)' lehiaketaren ebazpen-ekitaldira Andres Iñigo joan da.
- Abenduaren 17an, Bilboko Zabalgune plazako azokan, PSE-EEko Patxi Lopezek egin duen "Kultura irekia"ren aurkezpenera Euskaltzainburua joan da.
- Abenduaren 18an, Bilboko Udaletxean, 2008ko "Bilbotar ospetsuak" izendatzeko ekitaldira Abel Muniategi euskaltzain urgazle eta Herri Literatura batzordekidea joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 19an, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Gasteizen euskal gizartearen ordezkariari egin dien harrera-ekitaldira Manu Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkaria joan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Abenduaren 22an, Eusko Ikaskuntzaren 90. urteurreneko ospakizunera, Ana Toledo joan da.

II. AKADEMIA JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutu etako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzorde eta egitasmoek 2008an egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batua	16
Zientzia eta teknika hiztegia biltzeko egitasmoa	1
Hiztegi Batua (2. itzulia) batzordea	(*)
Gramatika	10
Dialektologia-Atlasa	16
Onomastika	21
Exonomastika	11
Herri Literatura	13
Literatura Ikerketa	11
Corpus	5
Euskalkiak	5
Sustapen	5
Argitalpenak	1
Azkue Biblioteka	2
I. Toponimia Ikastaroa	1
XII. eta XIII. Jagon Jardunaldiak	2
Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT)	10
Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)	11
XVI. Biltzarreko Batzordeak	14
90. urteurreneko batzordea	2
GUZTIRA:	157

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hiztegegintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegia*-z gain Euskaltzaindiak beste bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.

II.1.1 EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegia amaitu ondoren, Akademiak, *Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua - 1. itzulua - Adierak eta adibideak)* izeneko hiztegia egiten ari da. Hiztegi horren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen Hiztegi Batua da, lehen itzulian argitaratutako hitzak.

- Idazketari dagokionez *has – noizaldi* arteko lehen idatzaldia burutu da.
- Zuzenketa-lanari dagokionez, *g - kuzkurto* tarteko sarrerak egin dira.
- Orotariko Euskal Hiztegiko zenbait atal eguneratzen ere jardun du lantaldeak, eta osatze-lan hori baliagarria izango da *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egiteko. *Bereganatu - busti* artekoak osatu eta eguneratu dira.

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Hiztegi Batua-ren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso ziren. Bigarren erabilera urriagokoak jasotzen ari dira. Lehenengo itzulian 22.736 sarrera landu eta onartu ziren. Bigarren itzulian amaitzean guztira 55.000 hitzetik gora izango du *Hiztegi Batuak*.

Interneten eskaintzen den Hiztegi Batuko zerrendak 32.983 hitz ditu guztira, 28.802 sarrera eta 4.181 azpisarrera.



Multzoka aztertu beharrekoak

Hiztegi Batuaren bi itzuliak burutzean, behar bezala aztertu gabe geratu ziren zenbait alderdi aztertu dira. Horietako bat, “multzoka landu beharreko formak” deitu izan dena.

x-tar osaerakoak

2007an hasi zen lantaldea *x-tar* osaerakoak aztertzen, eta 2008an amaitu du lana. *iraniar* eta *zuretar* artekoak, (*afro-x* edo *anglo-x* bezalako osagai berezia dutenak, batetik, eta, bestetik, *bizantziar-eslaviar* bezalako dvandvak). Guztira, 1.200 bat forma ditu aztergaiak, eta erdiak-edo landu dira 2008an.

Aroak

Berariazko zerrendan jaso dira aroen izenak, 150 bat forma aztertu eta bilduz.

Izen propioen eratorriak

Izen propioek hiztegi arruntean eta euskararen tradizio lexikografikoan duten lekua aztertu da. Modu askotakoak dira izen propioen eratorriak, eta adiera zabalean hartu da hemen kontzeptu hori. Guztira, 938 hitzeko zerrenda aztertu da, izen propioen eratorriak diren formak.

Arauk

Hiztegi Batuan, *ea eta eroankortasun* hitzen arteko oharrak txertatu dira; F eta G letren zerrendak gehitu dira, oharririk ez zuten hitzenak; eta, azkenik, hizkuntza ofizialen izenak eguneratu dira.

Kontsultei erantzun

EiTBren bidez Euskaltzaindiak jaso duen eguraldiaren inguruko terminologiari buruzko kontsulta aztertu du Hiztegi Batuko lantaldeak. "Euskalmeten terminologia" izeneko txostena, 19 orrialdetan bildua, aztertu du eta bere irizpena eman zerrendako hitzez.

Lexikoaren behatokia

Hiztegi Batuko lantaldeak urteak daramatza corpusetan oinarrituz Hiztegi Batua osatzen duten formak lantzen eta proposatzen: *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpora eta *XX. Mendeko Euskararen Corpora*. Oinarritzko hiztegia eskuratu da iturri hauekin, baina aurrera begira egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra ikusi du lantaldeak, gaurko testuak etengabe bilduko dituen. Jokabide horien behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu nahi duen corpus berria: ahalik eta informazio osoena informazioa bilduko du, ahalik eta modu automatikoenean, gaur eskura dauden baliabideei esker.

UZEIrekiko lankidetz

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2008an ere. Euskaltzaindiak emandako diru-laguntzaren trukean UZEIk lan hauek egin ditu Akademiarentzat:

- Hiztegigintzarako aplikazioa landu.
- Hiztegi Batuko arauak eta lantaldearen proposamenak XMLn jarri.
- Hiztegi Batuaren bigarren itzulia XMLn etiketatu.
- Sarrera guztiei uneko egoeraren eremua gehitu.
- Lexikoaren Behatokian parte hartu.
- Hiztegi Batuko Lantaldearentzat prestalana egin.
- Hiztegi Batuaren material guztia (formen historialak, iritzi-emaileen eta euskaltzain osoen oharrak) XMLn jartzeko proposamen-diseinua egin.

II.1.3. ZIENTZIA ETA TEKNIKA HIZTEGIA EGITASMOA

Egitasmo hau 2008an hasi da lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknika arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzakoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan txertatu ahal izateko.

Lehenik egitasmoaren definizioari ekin zaio, ondoren zehazten diren urrats hauek eman direlarik:

1. *Lanaren metodologia zehaztea.* Hauek definitu dira: zein izango diren eztabaidaren urratsak eta prozedurak, zein iturri erabiliko diren, nola antolatuko den informazioa eta lantaldearen helburuak egoki betetzeko gainerako prozedura-arazoak.

2. *Jorratuko diren jakintza-alorrek zehaztea eta lehentasunak ezartzea.* Egitasmoaren lanen irizpidea zein izango den, hots, zein jakintza-alor jorratuko diren, eztabaidatu da. Zientzia eta teknologiako alorrek jorratzea eta humanitateetakoak geroko uztea erabaki da. Halaber, zientzia puruetako hiztegia lantzea lehen lana izatea erabaki da. Lehenik matematikako terminoak emango dira eta, ondoren, fisika eta kimikakoak.

3. *Oinarri moduan erabiliko den termino zerrenda osatzea.* Termino zerrenda osatu da. Bertan, aurreikusita zegoen bezala Elhuyar datu-baseko hitzak eta Hiztegi Batuko lan-taldeak orain arte proposaturiko hitz zientifikoak eta teknikoak jaso dira, besteak beste.

Horrezaz gain, proiektuaren datu-basea diseinatzeari ekin zaio eta hasierako datuak kargatu zaizkio jada eta Hiztegi Batuaren 2. itzulirako tarteka proposatzen diren hitzak biltzeari ekin zaio.

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 2005era bitartean bederatzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) bigarrena lantzen ari da batzordea.

***EGLU VII (Mendeko perpausak 3) liburu* prestatzen**

Menderakuntzari buruzko hirugarren liburuak (aditz jokatu gabeei buruzkoak) izango dituen txosten hauek landu dira 2008an:

Behin betiko idatzaldia eman zaie txosten hauei:

Baldintza-perpausak
Helburuzko perpausak
Kausazko perpausak
Kontzesio-perpausak

Lehen, bigarren edo hirugarren idatzaldia eman zaie txosten hauei:

Denborazko perpausak
Izenaren mendeko -TZEKO perpaus osagarriak
Moduzko perpausak
Perpaus osagarriak
Perpaus jokatu gabeetako subjektuak: kontrolaren arazoa



2008ko azaroaren 14an, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkartzan; ezkerretik eskuinera: Karmele Rotaetxe, Jesus Mari Makatzaga, Pello Salaburu, Juan Gartzia, Itziar Laka, Patxi Goenaga, Pierre Xarriton eta Jose Antonio Mujika.

Hizkuntza kontsultak

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da. Hona hemen Gramatika batzordeak edo Gramatika batzordeko erantzuleek beren kasa landu eta erantzun dituzten galdera batzuk:

- *Baino besterik* egituraren zuzentasunaz.
- Berorika ari garenean agintera-formek nola behar luketen.
- *-ela* eta *-enik* menderagailuak eta auresuposizioak.
- *Gizonak burua jaso eta joan zen*, ala *Gizona burua jaso eta joan zen*.
- *Jarraiki* aditzaren iraganeko forma trinkoak: *nerraion / herraion ...* ala *ninderraion / hinderraion ...?*
- *Jarraitu* eta *jarraiki* aditzen arteko aldeez.
- *Jauna, betor berori hona!* / *Jauna, datorrela berori hona!* / *Jauna, etorri berori hona!*
- *Joango* garenean aditz-formaren zuzentasunaz.
- *Jolastu* eta *borrokatu* aditzen erabilera: *jolasten/borrokatzen dugu?*
- *Nabigatu* aditzaren erregimena: *nabigatu da* ala *du?*
- *Nortaz* pluralean: *nortzue* ala *nortzuetaz?*
- *Operatu* aditzaren erabilera: *bihotzetik operatu* ala *bihotzean operatu?*
- *Urteroko* / *eguneroko* moduan.
- *Zuk daukazunaren halako hamar* / *Zuk daukazunaren hamar halako*.
- *Hamarrek jo dute* / *Hamarrak jo ditu* / *Hamarrak jo dute*

Euskal Gramatika Orotarikoa

Gramatikaren sarrera izan daitekeena idazten jardun du egitasmoaren Zuzendariak. *EGO (Euskal Gramatika Orotarikoak)* osoak bilduko dituen gai eta puntu guztien laburpena da. Badira idatziak 170 orrialde.

Egitasmoko teknikariak lan hauek egin ditu: *EGO* sarreraren lehen idazketa aztertu du osorik, eta oharrak egin; izen-sintagmaren eskema askoz ere zehatzagoa ere egin du, eta aditz-erregimena landu.

Irizpena

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik jaso duen *Morfosintaxia* izeneko lana Gramatika batzordera bidaltzea erabaki du. Lan hori, Hezkuntza Saileko EIMA (Euskarazko Ikasmateriak) programaren argitalpen gaia da. Gramatika batzordeak lana aztertu du eta bere irizpena eman.

II.3. DIALEKTOLOGIA

II.3.1. EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2008an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz

Datuak sartu

5. atalean, herri hauetako datuak sartu dira:

- Bizkaia (19): Arrazola, Bakio, Bermeo, Bolibar, Busturia, Elantxobe, Elorrio, Etxebarri, Fika, Gizaburuaga, Ibarri, Kortezubi, Larrabetzu, Lekeitio, Mendata, Ondarroa, Orozko, Zeberio eta Zollo.

- Gipuzkoa (26): Amezketa, Araotz, Arrasate, Ataun, Azkoitia, Beasain, Beizama, Donostia, Elduain, Errezil, Ezkio-Itsaso, Hondarribia, Getaria, Ikaztegieta, Lasarte, Legazpi, Leintz Gatzaga, Mendaro, Pasaia, Oiartzun, Oñati, Orio, Urretxu, Tolosa, Zegama eta Zestoa.

- Nafarroa (19): Abaurregaina, Alkotz, Arbizu, Donamaria, Dorrao, Etxalar, Etxaleku, Eugi, Ezkurra, Goizueta, Igoa, Jaurrieta, Leitza, Mezkitz, Oderitz, Suarbe, Urdiain, Zilbeti eta Zugarramurdi.

- Nafarroa Beherea (17): Aldude, Arboti, Armendaritze, Arnegi, Arrueta, Baigorri, Bastida, Behorlegi, Bidarrai, Ezterenzubi, Gamarte, Irisarri, Izturitze, Jutsi, Larzabale, Luzaide eta Uharte Garazi.

- Lapurdi (13): Arrangoitze, Azkaine, Bardoze, Beskoitze, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Itsasu, Makea, Mugerre, Sara, Urketa eta Uztaritze.

- Zuberoa (5): Altzai, Domintxaine, Larraine, Santa Grazi eta Urdiñarbe.

Datuak landu

VI. liburukirako 38 mapa egin dira.

II.3.2. AHOZKO TRADIZIOKO HIZKEREN CORPUSA EGITASMOA

Egitasmo honen helburua ahoz transmitituriko edukiak gorde, sailkatu, era selektiboz transkribatu eta ondoko ikerkuntzarako oinarritzat eskaintzea da. Hizkuntza Atlaseko ondarea hitzetan dago oinarrituta geienbat, gramatikan ere bai neurri batean, edo esparru tematikoetan. Horregatik, Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusha egitasmoan bestelako edukiak bilduko dira, hala nola lanbideak, ohiturak, ipuinak, pasadizoak, oroitzapen zaharrak, sineskerak, esaerak, jokoak, kantuak... Horretarako ahozko transmisioaren ondarea modu sistematiko eta metodologiko batzereko plan bat abian jarri da.

Euskaltzaindiak 2007ko XV. Barne Jardunaldietan sortu zuen egitasmo hau eta 2008an urrats hauek eman ditu:

- Eremu tematikoa zehaztu du.
- Dokumentatze lanari ekin zaio.
- Galdekizuna prestatu da.
- Galdeketa-lanak egiten hasi dira.
- Egitasmora egokituriko programa informatikoen prestakuntza.

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi “Herri eta Herritarren Izenen batzordea” izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatu

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 21 deitura finkatu dira batzordean 2008an zehar.

Ponte izendegia osatu

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburua 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 39 pertsona-izen finkatu dira batzordean 2008an.

Toponimia-lanak gainbegiratu

- Herri hauetako toponimia-ikerketak gainbegiratzeko aritu da batzordea 2008an: Azkoitia, Bermeo, Berriz, Getxo, Gernika, Gorniz, Leioa, Erandio, Ordizia, Gautegiz Arteaga-Ibarrangelua, Sopelana, Zaratamo, Zestoa eta Zornotza. Onomastika batzordekide hauek izendatu dira zuzendari izateko, tutore edota epaimahaikide: Felix Mugurutz, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galé.
- Herri hauetako mapak gainbegiratu dira: Altza, Añana, Arrigorriaga, Bernedo, Bilbo, Donostia, Igorre, Otxandio, Turtzioz eta Zalduondoko. Mapak gainbegiratzeko Onomastika batzordekide hauek izendatu dira: Elena Martinez de Madina, Iratxe Lasa, Jose Antonio Salazar eta Roberto Viñaspre.
- *Iparraldeko Toponimia* lanaren gainbegiratzea amaitu da.
- Gipuzkoako Toponimiaren ikerketa egin da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarengat.

Udalen kontsultak

Lan hau EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) Euskaltzaindiak egin duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da.

Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: Arcaya / Arkaia, Astigarraga, Baztan, Caicedo-Suso, Caicedo-Yuso, Chulapain / Txulapain, Erandio, Arabako Guardia, Azpeitia, Barakaldo, Berriozar, Gasteiz, Gesaltza Añana, Lagran, Marquiniz / Markiz, Matauco / Matauku, Montevite / Mandaita, Soraluze, Trebiñu, Zuñiga. Guztira, 400 izenetik gora onartu dira (kale, auzo eta kontzeju izenak).

Ikastaroa teknikarientzat

Azaroaren 6an, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak antolatuta, "Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean" izeneko ikastaroa egin da Durangoko Landako Guneko Elkartegian. Ikastaro honen helburua administrazio ezberdinetako euskara eta kultura sailtako langileei eta euskalgintza zein kulturgintzako bestelako entitate edota taldeei toponimiaren gaia nola landu dezaketen azaltzea eta erakustea izan da. Ikastaro hori EUDELekin elkarlanean antolatu du Euskaltzaindiak.



2008ko azaroaren 6an, Durangon, Landako Guneko Elkartegian.

Hona hemen egitaraua eta hizlariak:

- *Euskaltzaindia eta Onomastika*: Andres Iñigo.
- *Legedia, eskumenak eta administrazio prozedurak*: Jose Luis Lizundia.
- *Toponimia ikerketen oinarri teorikoak*: Patxi Galé.
- *Toponimia ikerketak: prozedura eta urratsak*: Mikel Gorrotxategi.
- *Toponimoak arautzeko irizpideak*: Iratxe Lasa.
- *Practicuma*: Iratxe Lasa.
- *Toponimia gizarteratzeko bideak. Erabilera administrazioetan*: Felix Mugurutza.
- Amaiera ekitaldia: Andres Urrutia, euskaltzainburua.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

EiTBren kontsultari erantzunez, "Euskal Herriko ermiten eta elizen adbokazioak" izeneko irizpena prestatu du Onomastika batzordeak, 33 izeni buruzko erantzuna emanez.

EiTBren kontsultari erantzunez, hondartza-izen arruntenak finkatu ditu batzordeak, 47 izeni buruzko erantzuna emanez.

Nafarroako oikonimia aztertzeke eskaria aztertu da, Nafarroako Gobernuak eskatuta.

Nafarroako Euskarabidearen eskariari erantzun zaio, *Ergoiena* izena dela eta.

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izen, leku-izen eta deiturez gain, herritarrek zuzenean (internet bidez, gutunez eta ahoz) egindako kontsulta ugarietara erantzun zaie.

II.4.1. EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA (ECO)

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu da eta datuak jasotzen jarraitu.

Behean zehazten diren mota ezberdineko izenak erregistratu dira 2008an zehar, datu-basean jasoaz:

Lekuak	10.708 leku-izen aztertu dira: bikoiztasunak aurkitu dira eta izen bakarra utzi da datu-basean
Exolekuak	123 izen gehitu dira
Iturriak	168 izen gehitu dira
Era dokumentalak	93.289 izen gehitu dira
Ahozko lekukotasunak	23.849 gehitu dira
Informatzaileak	231 gehitu dira

Egitasmo hau, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenean jarri dituen baliabideei esker gauzatu ahal izan da.

II.4.2. GASTEIZKO TOPONIMIA

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da Udalbarrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. Bi argitalpen hauek argitaratzeko prest utzi dira: *Toponimia de Vitoria I / Gasteizko Toponimia I: Ciudad / Hiria* eta *Toponimia de Vitoria II / Gasteizko Toponimia II: Malizaeza*

Malizaeza eskualdean herri hauek bildu dira: Ali / Ehari, Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegietea, Eskibel, Gaztelu / Castillo, Gobeu, Lasarte, Mendiola eta Monasterioguren.

Urrats hauek eman dira bi liburuki horien prestaketan: oharren berrikusketa burutu, osatu eta testuan idatzi; sarrerak normalizatu; sortutako zalantzak argitu eta erabakien ondorioak txertatu; idazkeraren berrikusketa burutu; toponimo-zerrendak prestatu; bibliografia eta laburdurak osatu eta zuzendu; herrietako toponimoen zerrendak osatu; Gasteiz hiriko toponimoen eta kale-izendegiaren zerrendak prestatu eta, azkenik, bi argitalpengaien testu osoa gainbegiratu.

II.5. EXONOMASTIKA

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Exonomastikako araugaiak prestatu

“Europako eskualde historiko-politikoak”

Europako eskualde hauen testuak prestatu ditu batzordeak 2008an zehar:

- Erdialdeko Europako lurraldeak: Txekia, Eslovakia, Hungaria, Errumania eta Moldavia.
- Balkanak -Bulgaria, Jugoslavia ohia, Grezia, Albania- eta Zipre.
- Ekialdeko eslaviarrak: Ukraina, Bielorrusia eta Errusia.
- Portugal, Espainia eta Frantziako eskualde historiko batzuk.

Araua argitaratzeko prestalanak egin dira: aurkezpena eta ohar argigarriak erantsi dira; greko modernoaren transliterazio-taularen eranskina prestatu da. Euskaltzaindiak arau maila eman dio zerrenda honi, 154. zenbakiarekin argitaratuz; Arauak, guztira, 435 eskualde-izen bildu ditu.

Kosovo

Kosovo estatu sortu berriaren izenari buruzko proposamena prestatu du batzordeak. Euskaltzaindiaren otsaileko batzarrean aurkeztu da eta martxokoan onartu; ondoren, munduko estatuei buruzko arauan txertatu da (38. arauan). Izen hauek erabaki dira: *Kosovo* estatuarena eta herritarrena, hiriburuarena eta herritarrena, eta hizkuntza ofizialenak.

Europako hiri nagusien zerrenda

Europako hirien lehenengo bilduma gordina prestatu ondoren, irizpideak finkatu dira erabakitzeko zer hiri eta zenbat hiri sartu araugaian. Araugaian sartuko diren hirien izenei buruzko dokumentazio-lana egin da: euskal tradizioan agertzen diren grafiak, azken urteotako euskarari agertu diren grafiak, erdaretako formak eta informazio osagarria bildu da kasu bakoitzean. Hori eginda, banan-banan aztertu dira eta araugaian jasotzeko proposamenak prestatu. Abenduko osoko batzarrean euskaltzain osoei aurkeztu zaie araugaia.

Kontsultak

Batzordera itritsi diren galderei erantzun zaie: batetik, IGN -*Instituto Geográfico Nacional*- erakundeari erantzun zaio, Europako hizkuntza-izenei buruz, Europako 73 hizkuntza-izenen berri emanez. Bestetik, hiru galderari erantzun zaie: Europako estatu eta hiriburuaren euskarazko izenen sorrerari eta irizpideei buruz; zenbait toponimo, antroponimo eta artelanen euskarazko izendapenaz eta *Pirinio Atlantikoak* toponimoari buruz.

II.6. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

Herri Literatura batzordekoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetako epaimahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsoneri buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.6.1. HERRI LITERATURA

Herri Literatura jardunaldien antologia

Urte ezberdinetan zehar egin dituen Jardunaldietako artikuluen antologia-liburuaren ezaugarriak finkatu ditu batzordeak eta lan-bilketari ekin dio.

Xahoren kantutegia

Xahoren kantutegia argitaratzeko prestaketa-lanaren jarraipena egiten segitu du batzordeak, batzordekide batek egin duen aurrelanaren gainean.

Herri Literaturaren datutegia sortzeaz

Herri Literaturaren datutegia sortzeko eta zertzeko egitasmoa lantzen jarraitu du batzordeak.

Omenaldietan parte hartu

2009an ospatuko da Uztapide bertsolaria jaio zeneko mendeurrena. Zestoako herria ari da omenaldia prestatzen, eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordea harremanetan hasi da omenezko ekitaldietan parte hartzeko.

II.6.2. LITERATURA IKERKETA

Liburuen aurkezpenak

Liburu hauen aurkezpenean parte hartu du batzordeak:

- Maiatzaren 23an aurkeztu da *Euskera, 2007, 2* zenbakia. 2007ko uztailean, Udako Ikastaroen barruan, egin zen Jardunaldiko hitzaldiak aurtengo maiatzean argitaratu dira, *Euskera, 2007, 2* zenbakian. “*Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren ekarpena XX. Mendeko euskal narratibaren testuinguruan” izenburupean argitaratu dira hauen hitzaldiak: Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Ur Apalategi, Jon Kortazar, Jabi Rojo, Jabi Cillero, Jon Casenave, Iñaki Aldekoa, Patri Urkizu, Iratxe Retolaza, Sebastian Gartzia Trujillo eta Karlos Otegi.
- Azaroaren 14an aurkeztu da *Juan Mari Lekuona (1927-2005) hurbiletik* liburua, Euskaltzaindiak Oiartzungo Udalarekin batera argitaratua. Koldo Mitxelena kulturuneko aretoan eta Oiartzungo Udaletxean aurkeztu da liburua. Batzordekide hauek parte hartu dute liburu honetan: Gorka Aulestia, Pello Esnal, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Jon Kortazar eta Lourdes Otaegik.



2008ko azaroaren 14an, Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia, Aitor Etxeberria eta Lourdes Otaegi.

Epaimahaikideak proposatu

Literatura-sari hauetan epaimahaikide izateko izen-proposamenak egin dizkio Euskaltzaindiari batzordeak:

- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2008an antolatu dituzten sari hauetan: Txomin Agirre eleberria, Toribio Alzaga antzerkia, Felipe Arrese Beitia olerkia, Mikel Zarate saioa, eta Gazteentzako Azkue Sarietako A eta B arloak.
- Kultura Ministerioak 2008an antolatu dituen Sari Nazionaletan: Olerkia, Narratiba, Saiakera, Antzerkia eta Haur Literatura.

“Gerra zibila euskal literaturan (1936-2009)”

“Gerra zibila euskal literaturan (1936-2009)” izeneko jardunaldiak antolatu nahi dira 2009ko EHUko Donostiako Udako Ikastaroetan. Horretarako egitaraua eta hitzaldiak finkatu dira. Hori guztia Euskal Herriko Unibertsitatearen 2009ko Udako Ikastaroen Idazkaritzari aurkeztu zaio.

Euskal Literaturaren testu antologia

Batzordeak, aro ezberdinetako testuen aukeratzeaz oinarrizko eztabaida egin du, kasuan kasuko lantaldeak aurkeztu duen proposamenetik abiatuta. Erdi Aroa eta Errenazimentua eta Erreforma izan dira aztertu diren aroak, eta antologian sartzea mereziko luketen testu literarioen lehen eztabaida egin da.

II.6.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2008ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: Mikel Zubeldia. Lana: *Ekilibristaren polka*.
- Toribio Altzaga antzerki saria: Pako Aristi. Lana: *Josu Dukatiren proposamena*.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: Amaia Jauregizar. Lana: *Azazkalak jaten*.
- Mikel Zarate saiakera saria: eman gabe geratu da.



2008ko abenduaren 16an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Mikel Zubeldia, Amaia Jauregizar eta Pako Aristi.

Jaun-andre hauek izan dira epaimahaikoak:

- Txomin Agirre sarian: Karlos Otegi, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

- Felipe Arrese Beitia sarian: Felipe Juaristi, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Iñaki Aldekoa, Xabier Alzibar eta Sebastian Gartzia Trujillo.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoen lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2008ko *R. M. Azkue* saria irabazi dutenen berri:

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Zabaletaren autobusa</i> 2) <i>Tximiniako uso zuria</i> 3) <i>Indiana Jons-en azken abentura</i>	Maialen Watzinger Libe Galdos Maialen Alkizu	Urola (Azpeitia) Loinazpe (Zegama) Iparragirre (Urretxu)
A: olerkia 10 - 13 urte	1) <i>Zuretzat</i> 2) <i>Urtaroak</i> 3) <i>Maitasuna beti ez da berdina</i>	Elena Casiriain Lorea Bosc Oihane Zugarramurdi	Xalbador (Kanbo) Xalbador (Kanbo) Narbarte (Goizueta)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Mendian gora</i> 2) <i>Pareta bezain zuri</i> 3) <i>Guzizko Jaun noble</i> Accesit: - <i>Charles Holmes eta Pergamoko bitxiak</i>	Iraitz Ugalde Iraitz Ugalde Aritz Urrutia Mikel Muñoz	Mitxelena (Errenteria) Mitxelena (Errenteria) Lekaroz (Elizondo) Zubiri (Donostia)
B: olerkia 14 - 17 urte	1) <i>Hego haizea</i> 2) <i>R.I.P. Poesia</i> 3) <i>Betiere</i> Accesit: - <i>Seme soldaduak amari</i>	Irati Mogollon Iraitz Ugalde Leire Arenas Maialen Dagorret	Lezo Lizeoa (Pasaia) Mitxelena (Errenteria) Ikasberri (Azpeitia) Xalbador (Kanbo)



2009ko martxoaren 18an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Hauek izan dira Azkue Sarietako epaimahaikoak:

- A maila: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B maila: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Espainiako Kultura Ministerioak ematen dituen “Literatura Sari Nazionaletarako” Euskaltzaindiaren izenean 2008ko deialdian parte hartzeko izendatu diren epaimahaikideak honako hauek dira:

- “Premio Nacional de las Letras Españolas”, Miren Lourdes Oñederra
- Poesia arloan, Xabi Rojo
- Narrazioan, Arantxa Urretabizkaia
- Saiakeran, Adolfo Arejita
- Antzerkian, Aizpea Goenaga
- Haur eta Gazte literaturan, Xabier Etxaniz
- Itzulpen sarian, Sagrario Aleman

- Iruñeko Udalak antolatu duen Euskarazko Haur Literaturako XXII. Leihaketaaren epaimahaian, Mikel Bujanda izan da ordezkaria.

- Euskadi Sariak. Hauek izan dira Euskaltzaindiaren ordezkariak:

- Euskal Literatura: Txomin Peillen.
- Itzulpena: Adolfo Arejita

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen *corpusa* jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean -Euskaltzaindiaren webgunean- JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko eta galderak egiteko aukera eskaintzen da:

- Galdeleku informatikoa, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua galdegilearekiko). Urtean zehar 961 galdera jaso dira, eta horietako 954 galderari erantzun zaie.
- Galde-erantzunen datu-basea, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Une honetan datu-basea 542 galdera-erantzunez osatua da.
- Interneteko kontsultak. Urtean zehar, batetik 60.335 bilaketa egin dira datu-basean eta, bestetik, 120.296 bisitari izan dira JAGONETeko orri nagusian.

XII. Jagon Jardunaldiak *Testu-antolatzaileak-en* inguruan

Testu-antolatzaileak (Jagon bilduma, 7) liburua argitaratu da eta ondoren, jendaurrean aurkeztu, Iruñean, Jaso ikastolan, irailaren 18an. XII. Jagon Jardunaldiak egin dira, Corpus batzordeak antolatutak, egitarau honen arabera:



2008ko irailaren 18an, Iruñean, Jaso ikastolan; ezkerretik eskuinera: Lorea Agirre, Paskual Rekalde eta Andres Urrutia.

- Aurkezpen hitzaldia: *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Pello Esnal, lanaren egilea.
- Testu antolatzaileen aplikazioa:
 - . *Gazteriaren idazkerarako argitasuna eta garbitasuna*, Juan Luis Goikoetxea.
 - . *Euskararen erabiltzaile estrategikoa: helduen euskalduntze eta alfabetatzearen helburu*, Lourdes Elozegi, HABEkoa.
 - . *Hedabideak*, Lorea Agirre, Berria-koa.
 - . *Legeetako eta administrazioko testuak*, Andres Urrutia.

Irizpen eskabideei erantzun

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Corpus batzorde honen esku utzi ditu herri aginteei helarazitako kontsulta hauek:

- Ehunekoaren ikurra (%) nola idatzi behar den argitzea. Lana aztertu ondoren, Corpus batzordearen irizpena Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusira bidali da.
 - Zenbait herri-kirol izeni buruzko iritzia. Behin betiko zerrenda prestatu eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza bidali da.
 - *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan* argitalpen gaiaren azterketa. Oniritzia eman zaio lanari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidali da erantzuna.

II.7.2. EUSKALKIEN LANTALDEA

Euskalkien ekarria aztertu

Euskalkien lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Jose Luis Erdoziak prestatutako “Sakanako ekarria” izeneko zerrendaren 198 termino aztertu ditu, honela sailkatuta:

- 137 termino ontzat eman eta Hiztegi Batuko 2. itzulirako proposatuz.
- 23 termino ontzat eman eta Hiztegi Batuko 3. itzulirako proposatuz.
- 32 termino berri ontzat emanez.
- 6 termino baztertuz.

II.7.3. SUSTAPEN BATZORDEA

XI. Jagon Jardunaldietako hitzaldiak argitaratu

2007ko azaroaren 24an egin ziren XI. Jagon Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak eta txostenak bildu eta *Euskera*-n argitaratu dira (*Euskera*, 2007, 3, 1.219-1.574. orr.)

XIII. Jagon Jardunaldiak

2008ko udazkenean, azaroaren 21ean, XIII. Jagon Jardunaldiak burutu dira Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Hiru arlo azertu dira: kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak euskararen lur-eremu zabalean zertan diren; bermatze aldera egin diren urratsak zein izan diren, eta bestelako herrialdeetako ereduak. Jardunaldiotan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak zaintzen dituzten erakundeez gain, enpresa eta establezimenduetako edota hauek batzen dituzten elkarte eta erakundeetako ordezkariak gonbidatu dira.

Hau izan da jardunaldien izenburua: "Euskara, Kontsumoa eta Hizkuntza eskubideak". Hona hemen egitaraua eta hizlariak:

Goizeko saioa

- *Kontsumoa gutxiagotutako hizkuntzen indarberritzearen ikuspegitik. Ikuspegi orokorra.* Erramun Baxok
- *Kontsumoa soziolinguistikaren ikuspegitik:*
 - *Euskal Autonomia Erkidegoa.* Patxi Juaristi
 - *Nafarroa.* Sagrario Aleman
 - *Iparraldea.* Jean-Baptiste Coyos
- *123/2008 Dekretuaren zertarakoa, aldekoak eta kontrakoak.* Erramun Osa
- *123/2008 Dekretuaren nondik norakoak ikuspegi juridikotik.* Andres Urrutia



2008ko azaroaren 21ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

Arratsaldeko saioa

- *Kataluniako esperientzia:* Jordi Anguera i Camós (Director Agència Catalana del Consum).
- 123/2008 Dekretuari buruz eta eremu pribatuan euskara indarberritzeari buruzko iritzisorta:
 - *Gainazal handiak.* Leire Barañano Orbe (Eroskiko Idazkari Nagusia).
 - *Finantza Erakundeak.* Mikel Irizar Intxausti (Kutxako Kultura, Gizataldeak eta Lankidetzak sailaren arduraduna).

- *Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien Elkarte*a. Jon Aldaiturriaga (Zuzendari Kudeatzailea).
 - *Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera*. Kepa Jugo (Ekonomialaria).
 - *Kontsumitzaileen Euskadiko Federazioa*. Ainhoa Mendiola (Elkargoaren Gabinete Juridikoa).
- *Ondorioak eta saioaren bukaera*. Andres Urrutia, Andres Iñigo eta Erramun Osa.

Argitalpena “erregistroen trataeraz”

Euskaltzaindiak Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin daukan hitzarmena kontuan izanik, 2004. urteko Jardunaldi Pedagogikoetan hartutako konpromisoa bete nahiz, *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* izeneko lana argitaratu du Akademiak. Egileak: Mikel Barrios, Erramun Osa, Inma Muñoa, Itziar Elorza eta Kristina Boan. Liburu hau Jagon bildumaren 6. zenbakia da. Nafarroa Oinez-n kariaz, 2008ko irailaren 18an Iruñeko Jaso Ikastolan burutu diren ekitaldien barnean aurkeztu da.



2008ko irailaren 18an, Iruñean, Jaso ikastolan; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Iñaki Etxezarreta, Andres Urrutia, Erramun Osa eta Pello Esnal.

Etorkinak eta euskara

Etorkinen euskalduntzea aztertzeke lehen urratsak egin dira, eta horretarako lehenik ikerketari eta datu-bilketari ekin zaie. “Ipar Euskal Herrian helduen euskalduntzea eta etorkinak” gaia aztertzen hasi da. Eusko Jaurlaritzaren IV. Mapa Soziolinguistikoa eta III. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak ere kontuan izango dira.

II.7.4. JOANES ETXEBERRI EGITASMOA (EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA-EHS)

Abian jarri den egitasmo honek euskara eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzen denboran zeharreko gizarteko izaera-bizierak aztertu nahi ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolakerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

EHSri buruzko bibliografia prestatu

Datuen iturriak definitu dira eta jokabide informatikoa zehazteko lehen txostena prestatu. Datu bibliografikoak jasotzeko arautegia prestatu da eta 2.400dik gora fitxa prestatu dira.



2008ko urriaren 9an, Iruñean, Baluarte jauregian; ezkerretik eskuinera: Nikolas Gardner, Joseba Intxausti, Sagrario Aleman eta Mikel Zalbide.

Metodologia-eredu orokorra

Metodologia-eredua 2007ko urrian egindako nazioarteko mintegian aurkeztu zen. 2008an hori garatzeko eta operatibo bihurtzeko behar den Thesaurusaren lehen testua idatzi da eta testu errealekin kontrastatzen hasi da, beharrezko egokitzapenak eginez.

Euskararen Historia Sozialerako lehen saioa abiarazi

Gaiak eta txostengileak aukeratzen hasi da.

Lan-taldea osatu eta prestatu

Lantaldea osatuko duten informatikaria, kodetze-arduraduna eta hiru markatzaile lanean hasi dira eta oinarrizko preskatuntza eman zaie mintegien bidez.

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Aurreko atalean ikusi den bezala, Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

III.I. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa zerbitzua, batzordeen koordinazioa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek egoitzatik eta ordezkarietatik bideratzen dira.

Ordezkariak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I.6. atalean azaltzen dira.

Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak etengabe erantzuten dira ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkarietzan 95 ponte-izen eta 220 deiturari buruzko ziurtagiriak egin dira.

Bisitei dagokienez, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 1.046.668 bisita izan dira eta www.euskaracorpora.net helbidean, 24.748 bisita. Horrez gain, Euskaltzaindiaren egoitzan 4.729 lagun izan dira.

Erakundearen bilerak

Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostian ere tartekatzen diren.

Aipatutako bilerez gain, batzorde eta lantalde hauek ere honakoetan bildu dira: Gramatika batzordea, Donostian; Herri Literatura, Donostian eta Bilbon; Literatura Ikerketa, Donostian; Atlasa, Bilbon eta Baionan; Hiztegi Batuko lantaldea, Donostian; Corpus batzordea, Donostian, Bilbon eta Iruñean; Sustapen batzordea, Donostian, Iruñean eta Bilbon; Euskalkien lantaldea, Donostian eta Iruñean; Onomastika batzordea, Donostian eta Altsasun; Exonomastika batzordea, Durangon, Donostia eta Bilbon; Argitalpen batzordea, Bilbon eta Iruñan; Azkue Bibliotekako batzordea, Bilbon; Argitalpen batzordea, Bilbon; IKT batzordea

Bilbon eta Donostian; EHS batzordea, Donostian; XVI. Biltzarreko batzorde akademikoa, Bilbon, Donostian eta Iruñean; XVI. Biltzarreko antolakizun batzordea, Bilbon eta Donostian eta 90. urteurreneko batzordea, Donostian.



2008ko apirilaren 25ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, osoko batzarra.

Zuzendaritza

Gutxienez, hilean bi aldiz biltzen da. Erakundearen gobernua, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardun-bidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. Aurten 19 bilerak egin ditu ondoko laukian zehazten den bezala:

hila	eguna	tokia
Urtarrila	11	Donostia
Urtarrila	24	Bilbo
Otsaila	15	Donostia
Otsaila	28	Bilbo
Martxoa	14	Donostia
Apirila	03	Bilbo
Apirila	24	Donostia
Maiatza	16	Donostia
Maiatza	30	Iruñea
Ekaina	12	Iruñea
Ekaina	26	Bilbo
Uztaila	18	Hendaia
Iraila	12	Donostia
Iraila	25	Bilbo
Urria	17	Bilbo
Urria	30	Donostia
Azaroa	14	Donostia
Azaroa	27	Bilbo
Abendua	18	Donostia

Kudeatzaileak, dagokien arduradunekin antolatzen ditu bilerak.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira aurtien egin diren lan nagusiak azpiegitura informatikoren arloan eta Akademiaren egitasmoetan:

- Joanes Etxeberri egitasmoaren eraketa fasean parte hartzea (jarraipena).
- Euskararen Historia Soziala egitasmoaren bulego berriko telekomunikazio eta informatika azpiegitura ezartzea.
- XVI. Biltzarraren webgune berezia garatzea.
- Azkue Biblioteka zerbitzuaren azpiegitura informatikoa hobetzea.
- Egoitzako batzar-gelaren azpiegitura informatikoa berritzea eta egoitza-ordezkaritzen arteko bideokonferentzia sistema martxan ipintzea.
- Hiztegiak erredaktatzeko ingurunearen bertsio-berritzea.
- IKT batzordearentzako lanak:
 - Euskaltzaindiaren informatika alorreko segurtasun plana (jarraipena).
 - Webgunearen azpiegitura berritzea eta Web 2.0 tresnak gehitzea.
 - *Plazaberrri* bloga.
 - e-AEB zerbitzuaren 3.0 bertsioa.
 - Ikertzaileentzako baliabideak eskaintzen dituen *Iker/Jagon-Tegiak* atal berria.



Mantenu-zerbitzuak

Horrela banatu da egindako lana:

- Laguntza teknikoa erabiltzaileei, 1.054 zerbitzu (% 60,75).
- Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak, 225 zerbitzu (% 13).
- Matxurak eta ustekabekoak, 205 zerbitzu (% 11,82).
- Internet zerbitzuak, 187 zerbitzu (% 10,78).
- Informatika-segurtasuna, 59 zerbitzu (% 3,4).

Prentsa eta Komunikazio zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, *Albiste Orria* deritzana, egiten du Idazkariordearekin batera eta baita *Plazaberri* bloga.

Aurten hauek izan dira Prentsa Bulego honetatik bideratutako ekintza nagusiak:

- Urtarrilean, Leizarragaren “Testamentu Berria” (1571) liburuaren eresketa.
- Urtarrilean, Bilbon, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari omenaldia.
- Urtarrilean, Bilbon, Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmena sinatu.
- Osailean, Bergaran, Olaso Dorrea Sorrerakundearekin hitzarmena sinatu.
- Otsailean, Bilbon, ageriko bilkura: hilberri-txostenak.
- Apirilean, Henrike Knörr euskaltzain osoaren heriotza.
- Apirilean, Donostian, “Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria”ren aurkezpena.
- Maiatzean, Etxalekun, Sagrario Aleman euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Ekainean, Bilbon, *Literatura Terminoen Hiztegia*-ren aurkezpena.
- Uztailean, Hendaian, Aurelia Arkotxa euskaltzainaren sarrera-hitzaldia.
- Irailean, Nafarroa Oinez 2008 dela eta, Iruñean eginiko ekitaldiak.
- Irailean, Iruñean, XII. Jagon Jardunaldiak.
- Irailean, Bilbon, Patxi Uribarren euskaltzain oso berriaren izendapena.
- Urrian, Iruñean, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzara: “Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina”.
- Urrian, Jean Diharce “Iratzeder” euskaltzain osoaren heriotza.
- Azaroan, Bilbon, XIII. Jagon Jardunaldiak.
- Azaroan, Durangon, “Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean” ikastaroa, Onomastika batzordeak antolatutak.
- Azaroan, Karmelo Etxenagusien ohorezko euskaltzainaren heriotza.
- Azaroan, Donostian, *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)* liburuaren aurkezpena.
- Abenduan, Gasteizen, *Henrike Knörr* izena ordezkariaren aretoari jartzeko ekitaldia.

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkariaren aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Bilboko aretoan Bilbo Zaharra Forum elkarteak, besteak beste, honako ekitaldiak antolatu ditu: Juanjo San Sebastianen “Ruwenzori” saioa; Koldobika Jauregiren hitzaldia, “Euskara bidea” Xamar-en



2008ko azaroaren 12an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Gontzal Mendibil eta Iñaki Irazu.

hitzaldia; “Axular gaur” J.M. Irigoyen, Aingeru Epaltza, Txema Larrea, Aurelia Arkotxa eta Beñat Oihartzabal hizlarien hitzaldiak; Zigor Aldamaren hitzaldia; Bernardo Atxagaren hitzaldia; Gontzal Mendibil eta Iñaki Irazuren “Gandiaga” saioa; Koldo Izagirrerren eta Joseba Tapiaren “Aresti” saioa.

Horrez gain, honako hauek ere erabili dute aretoa: Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak; Bilboko Udalak; IRALEk; Euskal Folklore Elkarteak; Bilboko Emakume Kontseiluak; Mendebalde Kultur Alkarteak; Topagunea Elkarteak; Bilboko Ulibarri euskaltegiak; Santurtziko Udal Euskaltegiak; Bilboko “Ignazio Ellakuria”, Basauriko Urbi eta Derioko institutuek; Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak.

ORDEZKARITZAK

GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA

Euskaltzaindiaren bilerak Donostian

Ordezkaritza honetan Euskaltzaindiko Zuzendaritzak eta batzorde eta egitasmo ugarik egin dituzte beren bilerak. Aurten 72 bilera egin dira.

JAGONET kontsulta-zerbitzua

Jagonet kontsulta-zerbitzua Gipuzkoako ordezkarietan dago kokatuta eta bertatik erantzuten dira interneten bidez heltzen diren kontsultak.

Jendaurreko zerbitzuak

Ponte-izen edota deituren ziurtagiriak eskatzera eta kontsulta, argibide edo aholku eske hainbat hiritar hurbildu da Gipuzkoako ordezkarietara. Eskaera horiek erantzun edo bideratu dira.

Liburu-aurkezpenak

Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren argitalpenaren 50. urteurrena zela eta, egin ziren jardunaldien txostenek osaturiko *Euskera* agerkariaren zenbaki berezia argitaratu du Euskaltzaindiak (*Euskera*, 2007, 2). Aurkezpena, maiatzaren 28an egin da, Donostian, Doctor Camino Liburutegian..

Juan Mari Lekuona euskaltzainari omenaldi gisa Euskaltzaindiak Oiartzungo Udalarekin batera argitaratutako *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)* liburuaren aurkezpena, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eta Oiartzungo Udaletxean egin da azaroaren 14an.

Ordezkapenak

Gipuzkoako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I.6 atalean azaltzen den bezala.

Ondare bibliografikoaren digitalizazioa

Dokumentuak automatikoki ezagutzeko OCR deritzon programaren bidez, Euskaltzaindiaren argitalpenen digitalizazio lanari ekin zaio. Aurten, Iker saileko bildumaren liburuak tratatu eta zuzendu dira.

ARABAKO ORDEZKARITZA

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunez kanpo, Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko Udaletik, beste herri batzuetatik eta banakako ikerlarien aldetik etorritako hainbat kontsultari erantzun zaie.

Horrez gain, ponte-izenen edo deituren ziurtagiriak egin dira. Baita ere kontsulta, argibide edo aholku eske hurbildu diren hiritarrei erantzun zaie.

Bisitak

Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen “Gasteitxo Albistegia” ekitaldian parte hartzen duten ikastetxe, institutu zein euskaltegietako ikasleek hurbildu dira ordezkartzara Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri jasotzera.

Ordezkapenak

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I.6 atalean azaltzen den bezala.

Ondare bibliografikoaren digitalizazioa

Aurten, Iker saileko liburuak tratatu eta zuzendu dira eta *Euskera* agerkariaren digitalizazioarekin hasi da. Testuei OCR prozesua aplikatu zaie. Halaber, EHS egitasmorako artikulu ugari digitalizatu eta egokitu dira.

Henrike Knörr izena ordezkartzaren aretoari

Euskaltzain oso eta Arabako ordezkaria izan zen Henrike Knörr-en omenez, ordezkartzaren aretoari haren izena jarri zaio, Gasteizen abenduaren 2an egin den ekitaldian. Antolaketa eta prestaketa lanak ordezkartzatik bideratu dira.

NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza honetan Akademiaren azpiegiturak eskatzen dituen lanez gain, 2008. urte honetan honako lan hauek azpimarra daitezke:

Digitalizazio lanak

- *Iker* bildumako liburuak
- *Oroitidazkia* bilduma
- Antonio Arrueren artikulua
- *Fontes Linguae Vasconum*, Esteban Adoaini buruzko artikulua

Bestelako lanak

- XVI. Biltzarraren antolaketa eta prestakuntza lanak
- *Bera* herri izenari buruzko txostena bideratu da, Berako Udalak eskatuta.

Ordezkapenak



2008ko ekainaren 18an, Iruñean, Euskaltzaindiaren ordezkartzan; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Andres Urrutia eta Joseba Lakarra.

Nafarroako ordezkariak egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I.6 atalean azaltzen den bezala.

BAIONAKO ORDEZKARITZA

Bilkurak

Urtean zehar hilero egin dira ordezkaritza honetan kudeaketa-bilerak. Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak, Beñat Oihartzabal buruordeak, Piarres Charritton ordezkariak eta Annie Etxeberri ordezkariak langileak parte hartu dute. Horrez gain, Iparraldeko euskaltzainen urteko bilera nagusia egin da ekainaren 3an. Uztailean, Euskaltzaindiak bere osoko bilkura egin du Hendaian eta abenduan Onomastika batzordea Iparraldeko toponimiaz egindako txostena aztertzeko bildu da Iparraldeko euskaltzainekin.

Sarako Biltzarra

Martxoaren 24an, Pazko Astelehenez, Sarako Idazleen Biltzarra egin da. Aurten, Euskaltzaindiak bi liburu aurkeztu ditu: *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*, Pierre Charrittonek idatzia, eta Pierre Lhanderen *Yolanda eta beste euskarazko idazlanak*, Jon Casenavek paratua.

Sarako Biltzarrak bi urtean behin bi idazle omentzen ditu, eta aurten Txomin Peillen euskaltzain emeritua eta Xipri Arbelbide euskaltzain urgazlea izan dira omenduak.



2008ko martxoaren 24an, Saran; ezkerretik eskuinera: Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Andres Urrutia eta Pierre Charritton.

D Mailako Hizkuntza Gaitasun Agiria

Agiri hau eskuratzeko ekainaren 7an eta 21ean egin dira lehen deialdiko frogak eta, urriaren 11an eta 18an, udazkenekoak. Denetara, aurkeztu direnetatik 54 lagunek gaintu dituzte azterketak. Aurtengo frogak izan dira agiri hau eskuratzeko Euskaltzaindiak antolatutako dituen azkenak.

Diru-laguntzak

Euskeraren Erakunde Publikoak lagundu du Euskaltzaindia 2008. urtean. Horrez gainera, 32 udalek eta 5 lantegik.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

III.2.1. EGITASMOAK ETA ZERBITZUAK

Zerbitzu orokorrak

Aurten 1.932 sarrera berri egin dira katalogoan eta 4.033 ale berri sartu dira bibliotekan. Halaber, posta elektronikoko bidezko 225 galdera edo eskariri erantzun zaie.

Soinuzko artxiboaren digitalizazioa. Euskaltzaindiaren soinuuzko artxiboa, 621 ZM-z osatua, bildu, kodetu eta digitalizatu da.

Anaitasuna-ren digitalizazioa. Aldizkari horren digitalizazioan lagundu da.

Villasanteren idazlan guztiak. Luis Villasante euskaltzainburu ohiaren idazlan guztien bilketan eta digitalizazioan parte hartu da.

Espainiako katalogazio arauen euskarazko itzulpena. Aspalditik datorren egitasmoari amaiera emanaz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gidatutako egitasmo horren azken fasean lagundu da.

Jose Antonio Aranaren bibliotekaren katalogazioa. Aurreko urtean abiatu zen dohaintza garrantzitsu honen katalogazio prozesua eta aurten burutu da.

Etxebarriko gordailua. Gordailuaren atontze eta antolatze prozesuaren baitan, aurten material grafikoak sailkatu dira, interesgarrien digitalizazioari ekinez.

Olaso Dorreko Sorrerakundea. Aurten sinatu da hitzarmena Euskaltzaindiaren eta Olaso Dorrearen Sorrerakundearen artean, Euskaltzaindiari *Lacombe biblioteka* dohaintzan uzten zaiolarik hamar urterako. Halaber, ondare bibliografiko horren zaharberitze-prozesuari ekin zaio, aurrez onartutako plangintzaren arabera.



2008ko otsailaren 13an, Bergaran; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Jose Luis Elkoro.

Katalogazio-protokoloak. Lan prozedurak sistematizatzeko lanetan, materialak katalogatzeko hiru protokolo abiatu dira: hurrenez hurren Argazki artxiboari (ARG), Artxibo administratiboari (EUS) eta material digitalei (NAS) dagozkienak.

EHUko Letren Fakultatearekin elkarlean. Unibertsitate horretako irakaslea den batzordekide baten proposamenez, Gasteizko Letren Fakultatean bilduta dauden ehun bat pastoralen eskuizkribuen mikrofilmak digitalizatu eta katalogatuko dira.

Joanes Etxeberri egitasmoa. Euskaltzaindiaren Euskararen Historia Soziala egitasmoan lagundu da.

Dokumentu historikoen dohaintzak. Hiru pertsona hauen dohaintzak jaso dira: Miren Josune de Arkotxa Landa (Bilboko Karmengo Ikastolaren hastapenei buruzko zenbait dokumentu), Maria Luisa Larrazabal (euskararen historia sozialarekin lotutako 1956ko dokumentu bat), Markiegi-Kandina familia (euskarazko eta Euskal Herriari buruzko zenbait liburu).

3.II.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Euskal Klasikoen Autoritateak (EKA)

Hausnarketa prozesu luze bate ondoren, egitasmo honen helburuak eta ezaugarri nagusiak onartu dira. Hauek dira laburki:

- a) Batzordearen zeregina, euskal literaturako egile eta idazlan nagusien forma kanonikoak finkatzea da.
- b) Halere, katalogorako forma batzuk onartzeak ez du esan nahi maila guztietan forma horiek -eta horiek bakarrik- erabili behar direnik.
- c) Halaber, formak finkatzeko zenbait irizpide orokor onartu dira, lehendik onartuta daudenak osatzera datozenak (Ik. "Azkue Bibliotekaren *Katalogazio erregelak*" in *Euskera*, 51 (2006, 2) 1109-1258). Hauek dira:

- Egileen ponte-izenari dagokionez ondoko irizpide orokorra aplikatzea erabaki da: egile klasikoetan ponte-izena sistematikoki normalizatuko da, gaur egungo forma kanonikoak ezarriz.
- Izenburu hautatuei dagokienez, izenburua transliteratu egingo da, grafia gaurkotuz baina soinuak aldatu gabe.
- Orobat, izenburu hautatuari dagokionez, izenburu hautatua jatorrizko hizkuntzan emango da; baina jatorrizko idazlana elebiduna baldin bada, euskarazko izenburua hartuko da izenburu hautatutzat.

Azkue Bibliotekaren Artxiboa (ABA)

Batzordeak jarraipena egin die Artxiboarekin lotutako lanei.

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2008. urtean:

1. *Euskera*, 2007, 2

Zenbaki berezi honetan hau eskaini da: zatirik handiena *Leturiaren egunkari ezkutua*-ri eskainitako txostenek osatzen dute (*Leturiaren egunkari ezkutua eleberria*-ren ekarpena XX. mendeko euskal narratibaren testuinguruan); ikerketa eta liburu-aipamenak egin dituzte Patxi Salaberri Muñoak, Mikel Zalbidek, Andres Iñigok eta Patxi Juaristik. Aipatzekoak dira *Euskera* agerkariaren edukiaz -testuak aurkezteko eta argitaratzeko irizpideez- Andres Urrutia Argitalpen batzordeburuak adierazten dituenak. 294 orrialde.

2. *Euskera*, 2007, 3

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira berariazko gaiak: Andoni Sagarna euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia, Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari omenaldia, Gratien Adema "Zaldubi"-ren mendeurrenaren ageriko bilkura, Nafarroa Oinez 2007ko festa dela-eta Euskaltzaindiak Vianan egin zuen ageriko ekitaldia. Horrezaz gain, 2007an, "Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan" izenburuko XI. Jagon Jardunaldien emaitza jaso da. 843 orrialde.

3. *Euskaltzaindiaren 2007ko Oroitidazkia*

Euskaltzaindiak 2007an egin zituen lanen berri ematen duen txostena da. Interneten jarri da, Euskaltzaindiaren webgunean (www.euskaltzaindia.net helbidean). 83 orrialde. Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ere jarri da.

4. Euskaltzaindiaren ARAUAK (dagozkion arau-sortak)

- 38. araua -*Munduko estatuak, hizkuntza ofizialak, hiriburuak*-, osatu da Euskaltzaindiaren webgunean, *Kosovori* dagozkion izenak gehituz.
- 151. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak

- 152. Hiztegi Batuko F letra: *f – fuxina*
- 153. Hiztegi Batuko G letra: *g – guzur*
- 154. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak

5. Pierre Broussain: sa contribution aux études basques

Pierre Charrittonek paratua, “Euskaltzainak” bildumako 2. zenbakia. Pierre Charritton euskaltzainaren tesiaren berrargitalpena. 331 orrialde.

6. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak: Pierre Lhande

Jon Casenavek paratua, “Euskaltzainak” bildumako 3. zenbakia. 104 orrialde.

7. Euskalgintza XXI. mendeari buruz: XV. Biltzarra

Euskaltzaindiak 2001ean Bilbon egin zuen XV. Biltzarreko hitzaldiak eta txostenak argitaratu dira *Iker* bildumako 19. zenbaki honetan. 566 orrialde.

8. Jean Haritschelhar-i omenaldia

Euskaltzaindiak Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiari egin dion omenaldi-liburua da, *Iker* bildumako 21. zenbakia. 744 orrialde.

9. Literatura Terminoen Hiztegia

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordearen urtetako lanaren emaitza da. “Hiztegiak” bildumako 13. zenbakia; Bilbao Bizkaia Fundazioaren diru-laguntzaz argitaratua. 798 orrialde.



2008ko ekainaren 20an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Sebas Gartzia Trujillo, Xabier Altzibar, Karlos Otegi, Patri Urkizu, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar, Gorka Martinez, Ur Apalategi, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Txomin Peillen, Maria Jose Olaziregi, Jon Casenave, Gorka Aulestia eta Patxi Salaberri Muñoa.

10. *Morfología del verbo auxiliar vasco: compendio / Índice / Index*

Pedro de Yrizar zenaren lanaren laburpena, bildumaren 15. liburukia. 948 orrialde.

11. *Hitzak orbainetan*

Karmele Igartua. 2007ko Felipe Arrese Beitia olerki-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 80 orrialde.

12. *Kontrako bidean*

Pablo Barrio. 2007ko Toribio Alzaga antzerki-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 80 orrialde.

13. *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan*

Julen Arriolabengoa. 2007ko Mikel Zarate saiakera-sariaren irabazlea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua. 318 orrialde.

14. *Hiztegi Batua*

Elkar argitaletxearekin batera, koedizioan, argitaratu du Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua*. Edizio honetan, lehen itzuliko sarrerak daude eta, bigarren itzulikoak, *a* eta *eroankortasun* hitzen artekoak. 420 orrialde.

15. *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*

Elgileak: Mikel Barrios, Erramun Osa, Inma Muñoa, Itziar Elorza eta Kristina Boan. Euskaltzaindiaren "Jagon" bildumako 6. liburua da. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Akademiaren arteko lankidetzaren emaitza da. 92 orrialde.

16. *Testu-antolatzaileak: erabilera estrategikoa*

"Jagon" bildumako 7. zenbakia da. Euskaltzaindiko Jagon Saileko Corpus batzordeak burutua eta Pello Esnal batzordekideak koordinaturiko lana. 104 orrialde.

17. *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*

"Iker" bildumaren 22. zenbakia. Jurgi Kintana Goirienak paratua. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarrekin argitaratua. 664 orrialde.

18. *Artzain beltxaren neurtitzak*

"Euskaltzainak" bildumaren 4. liburua da. Henri Duhauk prestatua. Adema Zaldubiren bertso eta koplak biltzen dira. 234 orrialde.

19. *Domingo Agirre. Gutun bilduma*

"Euskaltzainak" bildumaren 6. zenbakia, Sebastian Gartzia Trujillok paratua. Euskaltzaindiaren eta Labayru Ikastegiaren arteko lankidetzaren emaitza da. 190 orrialde.

20. Erronkari eta Ansoko toponimiaz

“Mendaur” bildumako V. zenbakia. Juan Karlos Lopez-Mugartzak paratua. Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak sinatua duten hitzarmenaren barnean argitaratua. 741 orrialde.

21. Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)

Oiartzungo Udalak eta Euskaltzaindiak, koedizioan, argitaratua. Egileak: Xabier Lete, Gorka Aulestia, Anjel Lertxundi, Pello Esnal, Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Jon Kortazar, Joxe Austin Arrieta eta Lourdes Otaegi. 208 orrialde.

22. Narrazioak eta Olerkiak. R. M. Azkue Saria 2007

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak argitaratua. 2007ko sariei dagozkien literatura-lanak. 106 orrialde.

3.3.2. ARGITALPEN ETA SALMENTA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen eta salmenta banatzaileen bitartez egiten du, gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2008. urte bukaeran 1.550 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 258. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburu-dendei 60 ale saldu zaizkie, banatzaileei 1.000 inguru eta gizabanako eta erakunde desberdinei 520 ale. Argitalpenik salduenak *Literatura Terminoen Hiztegia*, *Testu-antolatzaileak*. *Erabilera estrategikoa* eta *Hiztegi Batua* izan dira. Zabalkunde eta trukezko harremanetan 2.500 ale inguru banatu dira.

Azokak

Saran, Pazko astelehenean izaten den Euskal Idazleen Biltzarrean ere izan da Euskaltzaindia. Liburu azoka ere baden biltzar hau, geroz eta gehiago Iparraldeko euskaltzaleentzat erreferentzia bilakatzen ari da. Aurten, ohiko saltokiaz gain, egitarauaren baitan Euskaltzaindiaren bi liburu aurkeztu dira.



2008ko abenduaren 6an, Durangon, Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Bilboko Liburu Azoka ekainean izan da. Bertan Euskaltzaindiaren lanak eskaintzeaz gain, *Euskera* agerkariaren ikerketa zenbakia -*Euskera*, 2007,2- eta Henrike Knörr-en omenezko liburuxka aurkeztu dira.

Durangon egin da Euskal Liburu eta Disko Azokaren 43. edizioa, abenduaren 5etik 9ra. Edizio honetan nobedadeak erakusteaz landa, “Pirinioetako Hizkuntzak” erakusketa ikusgai izan da.

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokataraz, zuzenean joan ez arren, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eraman dira. Aurten gainera Elkar banaketa enpresarekin hitzarmena sinatu da. Honen ondorioz, besteak beste, Euskal Herrian izaten diren azoka desberdinetan Akademiaren presentzia bermatua geratzen da.

III.4. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK BATZORDEA (IKT)

Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundea ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz. Edukiak erabiltzeko eta gizarteratzeko edo corpusen inguruko plana lantzen hasi aurretik, horiek kudeatuko dituen egiturazko batzorde berri hau sortzea erabaki zuen Euskaltzaindiak, Etxalarren, 2007an egin ziren XV. Barne Jardunaldietan, “Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT)” izenekoan.

Euskaltzaindiaren edukiak erabiltzea eta gizarteratzea

Ikertzaileei bideratuta, Euskaltzaindiaren webgunean gehituko diren eduki berrien prestaketa sustatu du batzordeak eta horien jarraipena egin:

- Webgunearen azpiegitura berritzea eta Web 2.0 tresnak gehitzea
- *Plazaberri* bloga
- e-AEB zerbitzuaren 3.0 bertsioa
- Ikertzaileentzako baliabideak eskaintzen dituen *Iker/Jagon-Tegiak* atal berria.



2008ko abenduaren 17an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Iñaki Kareaga eta Andoni Sagarna.

Testu-corpusak elikatu eta egituratu

Batzordeak Euskaltzaindiaren testu-corpusak elikatu, egituratu, bateragarri bihurtu eta gizarteratzeko lanei bideratuta, hobekuntza teknologikoak sustatu ditu honako alorretan:

- Hiztegitintzan: *Hiztegi Batua* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*
- Dialektologian: Euskararen Herri Hizkeren Atlasa
- Onomastikan: Euskal Corpus Onomastikoa
- Lexikoaren Behatokia egitasmoaren definizioan parte hartu du.

Bestalde, batzordearen xedeekin bat eginez, *Euskararen Erreferentzia-Corpusa* sortzeko bidean sakondu du batzordeak eta Euskararen Historia Sozialak kudeatuko duen jakintza-basearen definizioan parte hartu du.

Euskaltzaindiaren segurtasun plana

ISO 17799/2005 araudiaren bidetik, Euskaltzaindiaren edukien segurtasunerako plana abian ipini zen 2007an batzorde honen bidez. 2008an, segurtasun arauak eta gidak landu dira eta Euskaltzaindiari aurkeztu: “Datuak sailkatzeko gida” eta “Sailkatutako informazioa erabiltzeko gida”. Euskaltzaindiak apirilko osoko batzarrean onartu ditu.

IV. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

IV. 1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

Bost urterako hitzarmena

2005eko urriaren 7tik, Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskaltzaindiak bost urterako hitzarmena sinatua dute. Dokumentu horren xede nagusiak hauek dira: alde batetik, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritza, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako foru aldundien arteko lankidetzarako oinarriak finkatzea; eta, beste alde batetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko, alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzamenduaren arloen esparrua arautzea. Hitzarmen horren bitartez, Euskaltzaindiaren gastu arrunta eta, oro har, jarduera akademikoa, ziurtatu dira.



2008ko ekainaren 11n, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzan; ezkerretik eskuinera: Jone Agirregoikoa, Estibaliz Alkorta, Miren Dobaran, Jose Antonio Rodriguez, Agustin Otsoa Eribeko, Miren Azkarate, Andres Urrutia, euskaltzainburua, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo Juan Jose Zearreta.

Errendapen txostenak

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, egitasmo eta batzorde akademikoen lanen errendapen-txostenak bidaltzen dizkie Euskaltzaindiak Herri Administrazioei. 2008. urteari dagokionez, errendapen txosten hauek igorri zaizkie EAEko Herri Administrazioei: otsailean, 2007ko bigarren urte-erdikoak eta, urrian, 2008ko lehen urte-erdikoak. Txosten horietan, batzorde, egitasmo eta lantalde hauen lana jaso da: Euskaltzaindiaren Hiztegia, Hiztegi Batua, UZEI: Hiztegi Batua eta EEBS, Gramatika, Euskararen Herri Hizkeren Atlas, Onomastika, Exonomastika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Euskara Batua, Corpus, Sustapen, Azkue Biblioteka eta Argitalpen batzordeak.

Jarraipen batzordea

Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek Euskaltzaindiarekin sinatua duten hitzarmeneko Jarraipen Batzordea ekainaren 11n bildu da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Iazko eginkizunen txosten teknikoa eta diru-kontuen balantzea onartzea eta aurtengo diru-laguntzen egoera aztertzea izan dira bilerako gai nagusiak.

Hauek izan dira bileran: Jone Agirregoikoa, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria; Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia; Miren Dobaran, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia; Jose Antonio Rodriguez, Eusko Jaurlaritzako Euskara sustatzeko zuzendaria; Agustin Otsoa Eribeko, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria; Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua; Andres Urrutia, euskaltzainburua; Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiaren diruzaina; Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Jagon sailburua; eta Juan Jose Zearreta, Euskaltzaindiaren kudeatzailea; Pello Telleria, Euskaltzaindiaren idazkariordea.

IV. 2. NAFARROAKO GOBERNUA

2008ko Protokoloa sinatzea

Maiatzaren 30ean sinatu da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetzeta-hitzarmena. Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du eta, Foru Gobernuaren izenean, Xabier Azanza Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari-kudeatzaileak. Akordio horren arabera, hauek dira 2008. urteko eginkizun nagusiak:



2008ko apirilaren 22an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Iñaki Ayesa, Jose Luis González, Julen Calvo, Xabier Azanza, Carlos Pérez-Nievas, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Juan Jose Zearreta.

- Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) egiteko Nafarroako 3 herritako grabazioak euskarritan paratu eta ematea.
- Euskal Corpus Onomastikoa: Nafarroari dagozkion lanei jarraipena ematea.
- Zenbait argitalpenen prestaketa, horien artean Axularren *Gero* (berrargitalpena, euskaraz eta gaztelaniaz) eta Edu Zelaietaren *Baztan-Bidasoa hizkeren azterketa dialektologikoa*.
- Nafarroako Legeen lexikoa, euskaraz eta gaztelaniaz (Nafarroako glosategi juridiko-administratiboa).
- Aipaturiko lexikoarekin zerikusia duen terminologiari buruzko mintegia.

Jarraipen batzordea

Apirilaren 22an, Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko ordezkariak hartu ditu, Akademiaren egoitzan. Batzarrean, bi erakundeotako ordezkariak izan dira, eta euren arteko lankidetzari dagozkion hainbat jarduera aztertu dituzte. Horrezaz gain, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Euskararen Nafar Institutuaren berri zehatza eman diete euskaltzainei. Izan ere, Euskararen Nafar Institutua sortu zenetik lehenbiziko aldiz batu dira, era ofizialean, Euskaltzaindia eta Institutuko ordezkariak. Bestalde, 2008an egingo dituzten eginkizunez eta bi erakundeon arteko hitzarmen berriaz mintzatu dira bileran.

Batzarrean honako hauek izan dira: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andres Iñigo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria, Juanjo Zearreta kudeatzailea eta Pello Telleria idazkariordea. Nafarroako Gobernuaren aldetik, aldiz, Carlos Perez Nievas Hezkuntza kontseilaria, Jose Luis González Kabinete burua, Xabier Azanza Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari-kudeatzailea, Julen Calvo Euskararen Garapenerako Zerbitzuko zuzendaria eta Mikel Aranburu Euskararen gaineko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria.

Esan bezala, bileran Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean egingo dituzten lanak aztertu dira. Besteak beste, hauek ikusi dituzte: Euskal Corpus Onomastikoan

Nafarroari dagozkion lanen jarraipena, Edu Zelaietaren *Baztan-Bidasoa hizkeren azterketa dialektologikoa* tesiaren argitalpena, Nafarroako legeen terminologia juridiko-administratiboari buruzko jardunaldia edota Axularren *Gero* liburuaren berrargitalpena.

Batzorde Teknikoa

Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa lau aldiz bildu da. Euskaltzaindiaren izenean, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria, eta Gobernuarenean, Mikel Arregi, Paskual Rekalde eta Patxi Andueza. Hauek ere izan dira: Ruben Fuertes eta Julen Calvo. Biler horietako gai nagusiak hauek izan dira: 2008ko lanen jarraipena egitea eta 2009ko eginkizunak aztertzea.

IV.3. ESPAINIAKO ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketarako Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Hizkuntza Akademiarentzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako Akademiekin batera.

Cervantes Institutua

2005eko uztailaren 28an, Euskaltzaindiak eta Cervantes Institutuak lehendabiziko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, egoitzan. Hitzarmen honen xedeari jarraituz, euskal hizkuntza eta kultura bultzatuko dute bi erakundeek, batez ere Euskal Herritik kanpora eta Instituto Cervantes-en zentroen bitartez.

IV.4. FRANTZIAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Euskararen Erakunde Publikoa - EEP

Herri Agintek 2000. urtean egindako Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion eta, ondorioz, administrazio desberdinek beren laguntzak eman izan dizkiote Euskaltzaindiari.

2005. urteaz geroztik, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziari esker Herri agintek Euskaltzaindiari ematen dizkioten diru-laguntzak Euskararen Erakunde Publikoak kudeatu ditu.



2008ko urtarrilaren 24an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Max Brisson.

Urtarrilaren 24an, Jean Haritschelharri eginiko omenaldiarekin bat eginez, Euskararen Erakunde Publikoarekin 2010eko abuztura arteko iraupena duen hitzarmena sinatu du Euskaltzaindiak. Akademiaren izenean, Andres Urrutiak sinatu du, eta EEPren izenean, Max Brisson lehendakariak. Hitzarmen horrek bi erakundeen arteko lankidetzaz zehazten du.

Bi erakundeon arteko lankidetzaren ardatzak honako hauek izango dira: hiru alor nagusitan -Terminologian, Toponimian eta Itzulpengintzan- lan egingo duen Adituen Batzordea izendatuko da; Frantsesa-Euskara eta Euskara-Frantsesa Hiztegi Orokorra egingo da; Hizkuntza Gaitasun Egiaztapena sortuko da; Ipar Euskal Herriari begira, argitalpen bereziak sustatuko dira; Euskaltzaindiaren lana ezagutaraziko da.

Frantziako Institutu Geografiko Nazionala

Euskaltzaindiak 2006tik dauka hitzarmena Institutu Geografiko Nazionalarekin, Ipar Euskal Herriko euskal toponimia zehazteko eta finkatzeko.

IV. 5. UDALAK

EUDEL

2004ko otsailaren 27an, Euskaltzaindiak eta EUDELEk hitzarmena sinatu zuten toki erakundeei laguntza teknikoa emateko izen toponimikoen arloan. Hitzarmen honen xedari jarraituz, bi erakundeek aholkularitza ematen diete toki-entitateei, lekurik esanguratsuenen izen toponimikoen inguruan hartu beharreko erabakietan.

Donostia

Xalbador bertsolaria kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lantaldeak jardun du hor lanean.

Gasteiz

Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horren arabera, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimiaren ikerketa eta hiriburu horretako ordezkariaren ematen diren hizkuntza-zerbitzuak babesten ditu Udalak. Hitzarmenaren ondorioz, hauek dira eginkizun nagusiak: hizkuntza aholkularitza, Gasteizko euskarari buruzko azterlanak eta zenbait argitalpenen prestatzea.

Iruñea

Aurten ere urtebeteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Euskaltzaindiak, jasotzen duen laguntzaren trukean, hizkuntzari buruzko aholkularitza ematen dio Iruñeko Udalari; ikastaro eta hitzaldietan parte hartzen du eta Akademiaren argitalpenen zenbait ale ematen dizkio udal horri.

Zornotzako Udala

Zornotzako Udalak eta Euskaltzaindiak Zornotzako toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko hitzarmena sinatu zuten 2006ko maiatzean.

Azkoitiko Udala

Azkoitiko Udalak eta Euskaltzaindiak Azkoitiko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko hitzarmena sinatu zuten 2006an. Eñaut Frantsesena ikertzailea aritu da lanean, Akademiaren gidaritzapean.

Oiartzungo Udala

Oiartzungo toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea xede duen lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten Oiartzungo Udalak eta Euskaltzaindiak 2006ko abenduan. Hitzarmen horren arabera, Euskaltzaindiaren eginkizunik nagusia da toponimia bildu, finkatu, arautu eta normalizatzeari buruzko aholkuak eta irizpenak eskaintzea. Era berean, Akademiari dagozkio ikerketaren zuzendaritza eta aholkularitza zereginak. 2007an ekin zitzaion lanari.

Bilboko Udala

Urriaren 20an, Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Bilboko Udaletxean. Euskararen erabilera sustatzea helburu duen hitzarmen hori Iñaki Azkuna Bilboko alkateak sinatu du Udalaren izenean, eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.



2008ko urriaren 20an, Bilboko Udaletxean; ezkerretik eskuinera: Iñaki Azkuna eta Andres Urrutia.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Herritarrei zerbitzu egokia eskaini ahal izateko udal zerbitzuetatik eskatzen zaion hizkuntza aholkularitza emango du Euskaltzaindiak. Aholkularitza hau iraunkorra izango da bereziki hiri toponimiari dagokiolarik. Halaber, Euskaltzaindiak instituzio eta erakundeekin elkarlanean, kultur hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta euskararen aldeko bestelako ekimenak bultzatuko ditu.
- Euskarak Bilbon bizi duen eta bizi izan duen egoera hobeto ezagutzen lagunduko duten lanei ekingo die Euskaltzaindiak, bai azterlan historiko-linguistikoak bideratuz edota kasuan-kasuan taxutzen diren proiektuen arabera.
- Bilbori dagokionez, agortuta dauden euskal lan esanguratsuen berrargitalpena zein elkar-langintza honetatik sortzen diren beste lanen argitalpena ere sustatuko ditu Euskaltzaindiak. Ahal denean, argitalpen horiek euskarri informatikoan eskainiko dira Euskaltzaindiaren eta Bilboko Udalaren webguneetan.

Berrizko Udala

Berrizko Udalak eta Euskaltzaindiak Berrizko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzeko hitzarmena sinatu zuten 2006an.

Gernikako Udala

Gernikako toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea xede duen lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Gernikako Udalak eta Euskaltzaindiak.

Hitzarmen horren arabera, Euskaltzaindiaren eginkizunik nagusia da toponimia bildu, finkatu, arautu eta normalizatzeari buruzko aholkuak eta irizpenak eskaintzea. Era berean, Akademiari dagozkio ikerketaren zuzendaritza eta aholkularitza zereginak.

Getxoko Udala

Abenduaren 3an, Getxoko Udalak eta Euskaltzaindiak herriko toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea berraztertzeko hitzarmena sinatu dute. Euskaltzaindiaren izenean Xabier Kintana idazkariak sinatu du eta, Udalarenean, Imanol Landa alkateak.

IV.6. UNIBERTSITATEAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanari esker, 2008an, "Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Saria" sortu dute bi erakundeok. Apirilaren 16an, Euskaltzaindiaren egoitzan eginiko prentsaurrekoan, aurkeztu den sari hau euskarazko ikerketa bultzatzeko sortua da eta bi urterik behin deituko du EHUK Euskaltzaindiarekin batera.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Udako Euskal Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute, 2003ko abendutik, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basean (*Inguma*) lankidetzan jarduteko.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Euskaltzaindiaren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena indarrean dago 2001etik. Horren barnean, 2008. urteari dagokionez, Unibertsitate horretako Ikerkuntzaren Sustapenerako *Deiker* Institutuarekin batera, Toponimia arloko gaiak landu dira.

IV.7. EUSKALTEL

2002. urtetik, Euskaltel enpresak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatua dute.

IV.8. EITB

2007ko urtarrilaren 23an, hiru urteko iraupena izango duen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Euskal Irrati Telebistak (EiTB) eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren bidez, EiTBko hedabideetan euskararen erabilera egokia sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuarekin.

Bestetik, 2008ko urriaren 17an EiTBren egoitzan izan da Euskaltzaindia. Exonomastika batzordeak ohiko bilera egin du. Bestalde, HIKEA aplikazioa (hizkuntza kontsulta-zerbitzua) aurkeztu dio EiTBk Euskaltzaindiari.

IV.9. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2004an. Bost urteko iraupena duen hitzarmen horrek, bi erakundearen arteko loturak sendotzea du helburu.

IV.10. TOPAGUNEA

2005ean Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena (bost urteko iraupena duena) sinatu zuten.

IV.11. FEVE

2005etik FEVEk (*Ferrocarriles de Vía Estrecha* delakoak) eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horrek, hizkuntzaren normalizazioa du helburu.

IV.12. BIZKAIA IRRATIA

2006. urtetik, Bizkaia Irratiak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute.

IV.13. EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA

2006tik Euskarazko Komunikazio Taldeak (EKT) eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute. Hitzarmen horrek, euskara eta euskal kultura zabaltzea du helburu.

IV.14. LABAYRU EUSKAL KULTURAREN ERAKUNDEA

2006ko urriaren 26tik, Labayru Euskal Kultur Erakundeak eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatua dute.

IV.15. ELHUYAR FUNDAZIOA

2007ko martxotik, elkarlanerako hitzarmena sinatua dute Euskaltzaindiak eta Elhuyar Fundazioak.

IV.16. OLASO DORREA SORRERAKUNDEA

Otsailaren 13an, Euskaltzaindiak eta Olaso Dorrea Sorrerakundeak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute, Bergarako Olaso Dorrean, Sorrerakundearen egoitzan. Hitzarmen horri esker, Olaso Dorrea Sorrerakundearena den ondare bibliografiko eta artxibistikoa Euskaltzaindiaren egoitzan gordeko da; hots, George Lacomberen Biblioteka eta Olaso Dorrea Sorrerakundearen Arxibo Historikoaren XX. mendeko atala, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza emaztearen familiaren ondareak barne, Euskaltzaindian gordeko dira. Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du hitzarmena eta, Olaso Dorrearen Sorrerakundearenean, Jose Luis Elkoro lehendakariak.

IV.17. EUSKALERRIA IRRATIA

Ekainaren 12an, Euskalerrria Irratiak eta Euskaltzaindiak lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, Iruñean, irratiaaren egoitzan. Hitzarmen horrek, bi erakundeen arteko loturak sortzea du helburu, elkarren aitorpenetik abiatuz. Biak elkarlanean arituko dira, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak

euskararen arloan ezarritako arauak zabaltzeko. Euskalerrria Irratiaren izenean Jose Antonio Solano Iruñeko Komunikabideak S.A. enpresaren kontseiluburuak eta Mikel Bujanda zuzendariak sinatu dute eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak.



2008ko ekainaren 12an, Iruñean, Euskalerrria Irratiaren egoitzan; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Solano, Andres Urrutia eta Mikel Bujanda.

IV. 18. **BERRIA** EGUNKARIA

Urriaren 31n, Euskaltzaindiak eta *Berria* egunkariak hitzarmena sinatu dute, Akademiaren Gipuzkoako ordezkaritza. Hitzarmen horren bitartez, *Berria* egunkariak ekoizten dituen testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, egunkaria kaleratu zen unekoetatik hasita, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan. Hitzarmena Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Joan Mari Larrarte *Berria* egunkaria sortu zuen Euskarazko Komunikazio Taldeko (EKT) kontseilari ordezkariak sinatu dute.



2008ko urriaren 31n, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkaritza; ezkerretik eskuinera: Andres Urrutia eta Joan Mari Larrarte.

Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena da eta ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki antolatu bat prestatzea du oinarritzko lana. Corpus hori osatzeko hainbat hornitzaile aurreikusi ziren, hedabideak bereziki, eta hauen artean, besteak beste, interes orokorreko komunikabideak, jakintza eremuetakoak (literatura, zuzenbidea, erlijioa, zientzia, teknologia, artea, kirola, etab.), edota administrazioetako hizkera arrunta -ez espezializatua- lantzen dutenak. Bestalde, gutxienez 2000. urtetik aurrera sortutako testuz osatuko da corpusa eta etengabe elikatuko da. Lexikoaren Behatokia egitasmoa UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

IV. 19. HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Euskararen normalizazioan elkarlanean aritzeko helburuarekin, hiru urteko iraupena izango duen hitzarmena sinatu dute Euskaltzaindiak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE). Besteak beste, bi erakundeek Administrazio eta Zuzenbide arloan batera jardungo dute, eta Euskaltzaindiak sortuko duen Administrazioa eta Zuzenbide Hiztegia lantaldean HAEEK parte hartuko du. Hitzarmena Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Jon Urrutia HAEEko zuzendariak sinatu dute.

IV. 20. BERGARAKO IRIGOYEN PATRONATUA

Irailaren 5ean, Bergarako Irigoyen Patronatuaren eta Euskaltzaindiaren arteko akordioa sinatu da, herri horretan euskararen aldeko ekintzak bultzatzeko asmoz.

IV. 21. ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Azaroaren 25ean, Euskaltzaindiak, Arantzazuko Frantziskotarrek eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzan hitzarmena sinatu dute, Luis Villasanteren obra literarioa, lan pertsonalak eta artxiboa sistematizatu eta digitalizatzeko. Egitasmoa Euskaltzaindiak kudeatu eta burutuko du, 2008tik 2011ra bitartean. Gauzatze lana Joan Mari Torrealdaik zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak egingo du. Villasanteren funts osoa 40 liburu eta 1.000 bat idazlanetan sakabanaturik dago.



2008ko azaroaren 25ean, Bizkaiko Foru Aldundian; ezkerretik eskuinera: Joxe Mari Arregi, Jose Luis Bilbao eta Andres Urrutia.

Hauek sinatu dute hitzarmena: Joxe Mari Arregi Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako buruak; Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak; eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia

V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak

V.2. Hitzarmenak

V.3. Batzordeen zerrendak

V.4. Aurkitegia

V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK

EUSKALTZAIN OSOAK

Sagrario Aleman
Jose Antonio Arana Martija (emeritua)
Adolfo Arejita
Aurelia Arkotxa
Miren Azkarate
Pierre Charritton (emeritua)
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce “Iratzeder” † (emeritua)
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar (emeritua)
Andres Iñigo
Jose Irazu “Bernardo Atxaga”
Xabier Kintana
Henrike Knörr †
Joseba Lakarra
Emile Larre (emeritua)
Jose Luis Lizundia
Beñat Oihartzabal
Miren Lourdes Oñederra
Txomin Peillen (emeritua)
Andoni Sagarna
Patxi Salaberri
Pello Salaburu
Ibon Sarasola
Ana Toledo
Joan Mari Torreal dai
Patxi Uribarren
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta
Mikel Zalbide
Antonio Zavala (emeritua)

ZUZENDARITZA

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, buruordea
Xabier Kintana, idazkaria
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr †, Iker sailburua
Andres Iñigo, Jagon sailburua

ORDEZKARIAK

Gipuzkoa: Ana Toledo
Araba: Henrike Knörr †; ordezkariordea: Manu Ruiz Urrestarazu
Nafarroa: Andres Iñigo
Iparraldea: Beñat Oihartzabal
Baionako bulegoaren arduraduna: Pierre Charritton

ERAGILEAK

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea
Pello Telleria, idazkariordea
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea
Prudentzio Gartzia, Bibliotekako zuzendaria

V.2. HITZARMENAK

Euskaltzaindiak zenbait erakunderekin sinatuak dituen hitzarmenen berri ematen da ondoren, eta zein diren Akademiaren ordezkariak, izendatuak izan badira.

Erakundea	Ordezkaria(k)
Azkue Fundazioa	Euskaltzainburua; ordezkoa Idazkaria
Bilboko Udala	
Bizkaia Irratia	Jose Luis Lizundia, Adolfo Arejita
Deustuko Unibertsitatea	Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia
Elhuyar fundazioa	
EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea)	Diruzaina, Idazkariordea
Euskalerrria Irratia	Andres Iñigo, Sagrario Aleman
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Jon Aurre
Euskal Herriko Unibertsitatea	Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina
Euskal Irrati Telebista (EiTB)	Jose Luis Lizundia, Pello Telleria
Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)	Buruordea, Diruzaina
Euskarazko Komunikazio Taldea, S. A.	Andres Urrutia, Ana Toledo
Eusko Jaurilaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Iker eta Jagon sailburuak
Frantziskotarrak, Bizkaiko F. Aldundia	
FEVE	Pello Telleria, Mikel Gorrotxategi
Gasteizko Udala	Arabako ordezkaria
HAEE / IVAP	Euskaltzainburua, Diruzaina
Instituto Cervantes	Idazkaria, Diruzaina, Iker sailburua
Iruñeko Udala	
Jose Maria Irigoien patronatoa	
Labayru euskal kulturaren erakundea	
Nafarroako Gobernua	Burua, Idazkaria, Diruzaina, Nafarroako ordezkaria
Olaso Dorrea Sorrerakundea	
Topagunea	Idazkaria, Diruzaina
Udako Euskal Unibertsitatea	Euskaltzainburua
UZEI	Idazkariordea, Kudeatzailea

V.3. BATZORDEEN ZERRENDAK ¹

IKER SAILA

Sailburua: Henrike Knörr †

I. HIZTEGIGINTZA

1.1. *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoa

Zuzendaria: Ibon Sarasola

Kideak: Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

1.2. *Hiztegi Batuko lantaldea*

Arduraduna: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Irene Arrarats, Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Antton Gurrutxaga, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

1.3. *Hiztegi Batua (2. itzulia) batzordea*

Burua: Pello Salaburu

Idazkaria: Jose Antonio Aduriz

Aholkulariak: Miren Azkarate, Xabier Kintana.

1.4. *Zientzia eta teknika hiztegia biltzeko* egitasmoa

Zuzendaria: Xabier Kintana

Idazkaria: Iñaki Irazabalbeitia

Kideak: Andres Alberdi, Xabier Alberdi, Kepa Altonaga, Antton Gurrutxaga.

II. GRAMATIKA

II.1. *Gramatika batzordea*

Burua: Pello Salaburu

Idazkaria: Jesus Mari Makatzaga

Kideak: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Pierre Charriton, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe.

¹ Izendapen hauek (2007-V-31 eta 2007-VI-29an onartuak) 2007rako eta 2008rako dira.

II.2. Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa

Zuzendaria: Pello Salaburu

Idazkaria: Jesus Mari Makatzaga

Kideak: Patxi Goenaga, Itziar Laka, Beñat Oihartzabal, Paskual Rekalde.

Teknikaria: Haritz Monreal

III. DIALEKTOLOGIA

III.1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Zuzendaria: Adolfo Arejita

Arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Teknikariak: Iñaki Camino, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

Aholkulariak: Isaak Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose Maria Etxebarria.

III.2. Ahozko tradizioa biltzeko egitasmoa

Zuzendaria: Adolfo Arejita

IV. ONOMASTIKA

IV.1. Onomastika batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Patxi Galé, Imanol Goikoetxea, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Hector Iglesias, Henrike Knörr †, Iratxe Lasa, Jose Luis Lizundia, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi.

Aholkulariak: Jean-Louis Davant, Jose Antonio González Salazar, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernadette Soulé, Amaia Usabiaga, Luis Mari Zaldua.

IV.2. Exonomastika batzordea

Burua: Jose Luis Lizundia

Idazkaria: Alfontso Mujika

Kideak: Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak: Irene Arrarats, Gidor Bilbao, Patxi Galé, Asier Larrinaga.

IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

Zuzendaria: Andres Iñigo

Teknikaria: Patxi Galé

V. LITERATURA

V.1. Herri Literatura batzordea

Burua: Pello Esnal

Idazkaria: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak: Antton Aranburu, Adolfo Arejita, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Xabier Perez “Euzkitze”, Patziku Perurena, Antonio Zavala.

V.2. Literatura Ikerketa batzordea

Burua: Jean Haritschelhar

Idazkaria: Lourdes Otaegi

Kideak: Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Iratxe Retolaza, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. JAGON SAILA

Jagon sailburua: Andres Iñigo

VI.1. Corpus batzordea

Burua: Andres Urrutia

Idazkaria: Paskual Rekalde

Kideak: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Joxe Ramon Zubimendi.

VI.2. Euskalkien lantaldea

Arduraduna: Paskual Rekalde

Kideak: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Jose Luis Erdozia, Pello Esnal, Nagore Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Maialen Hiribarren, Patxi Iñigo, Manu Ormazabal, Joxe Ramon Zubimendi.

VI.3. Sustapen batzordea

Burua: Andres Iñigo

Idazkaria: Erramun Osa

Kideak: Arabako ordezkaria, Gipuzkoako ordezkaria, Iparraldeko ordezkaria, Nafarroako ordezkaria, Sagarrio Aleman, Erramun Baxok, Jean-Baptiste Coyos,

Aingeru Epaltza, Patxi Juaristi, Santiago Larrazabal, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia.

Aholkulariak: Xabier Erize, Jose Luis Lizundia, Karmele Rotaetxe.

VI.4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Zuzendaria: Joseba Intxausti

Aholkularia: Mikel Zalbide

Teknikaria: Nickolas Gardner

* * *

VII. EGITURAZKO BATZORDEAK

VII.1. Argitalpen batzordea

Burua: Euskaltzainburua: Andres Urrutia

Idazkaria: Argitalpen eragilea: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Adolfo Arejita, Diruzaina: Jose Luis Lizundia; Euskaltzainburuordea: Beñat Oihartzabal; Idazkaria: Xabier Kintana; Iker sailburua: Henrike Knörr †; Jagon sailburua: Andres Iñigo; Pello Salaburu.

Aholkulariak: Idazkariordea: Pello Telleria; Kudeatzailea: Juan Jose Zearreta.

VII.2. Azkue Biblioteka batzordea

Burua: Jose Antonio Arana Martija, bibliotekaria

Idazkaria: Prudentzio Gartzia, zuzendaria

Kideak: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Sebastian Gartzia Trujillo, Joseba Lakarra, Gerardo Luzuriaga.

Aholkulariak: Joseba Agirreazkuenaga, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Agurtzane Juanena, Henrike Knörr †.

VII.3. Ekonomia – Fundazioa batzordea

Burua: Jose Luis Lizundia, diruzaina

Idazkaria: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea

Kideak: Xabier Erdozia, Sebastian Gartzia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe, Abel Muniategi, Javier Saizar, Andres Urrutia.

VII.4. Informazio eta Komunikazioaren teknologiak batzordea (IKT)

Burua: Euskaltzainburua

Idazkaria: Euskaltzaindiaren informatikaria

Arduraduna: Andoni Sagarna

Kideak: Diruzaina, Kudeatzailea

Aholkulariak: Batzordeburuak, egitasmo-zuzendariak eta lan-taldeen arduradunak, gaiaren arabera; Xabier Artola, Miriam Urkia.

VIII. XVI. BILTZARRA

VIII.1. XVI. Biltzarraren batzorde Akademiko suntsikorra

Burua: Andres Urrutia (Deustuko Unibertsitatea)

Idazkaria: Xabier Kintana (EHU – UPV)

Kideak: Henrike Knörr † (EHU – UPV), Joseba Lakarra (EHU – UPV), Aurelia Arkotxa (CNRS eta Baiona – Bordeleko Unibertsitateak), Txomin Peillen (Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko irakasle emeritua), Patxi Salaberri (NUP).

VIII.2. XVI. Biltzarraren Antolakizun batzorde suntsikorra

Burua: Jose Luis Lizundia, diruzaina

Idazkaria: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea

Kideak: Sagrario Aleman, Nafarroako euskaltzaina; Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria; Amaia Okariz, Prentsa eta Komunikazio arduraduna; Pello Telleria, idazkariordea.

V.4. HELBIDEAK

EGOITZA

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e: info@euskaltzaindia.net
Http://www.euskaltzaindia.net
Kudeatzailea: Juan Jose Zearreta
Idazkariordea: Pello Telleria

PRENTSA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: prentsa@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Amaia Okariz

ARGITALPEN ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: rbadiola@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Ricardo Badiola Uriarte

ARGITALPEN SALMENTA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Gordailua:
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: (00-34) 94 440 62 58
Posta e.: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Jon Artza

AZKUE BIBLIOTEKA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 27 45
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria: Pruden Gartzia

ONOMASTIKA ZERBITZUA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa: (00-34) 94 415 81 44
Posta e.: mikelonoma@euskaltzaindia.net
Arduraduna: Mikel Gorrotxategi

ORDEZKARITZAK

ARABA

Alava Jenerala, 5
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: (00-34) 945 23 36 48
Faxa: (00-34) 945 23 39 40
Posta e.: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Henrike Knörr †: ordezkariordea: Manu Ruiz Urrestarazu

GIPUZKOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf. : (00-34) 943 42 80 50
Faxa: (00-34) 943 42 83 65
Posta e.: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Ana Toledo

NAFARROA

Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf. : (00-34) 948 22 34 71
Faxa: (00-34) 948 21 07 13
Posta e.: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Andres Iñigo

IPARRALDEA

Paul Bert plaza, Gaztelu-Berria, 1. solairua
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf. : (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa: (00 33) (0) 559 59 45 59
Posta e.: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria: Beñat Oihartzabal
Baionako bulego arduraduna: Pierre Charritton

MEMORIA
Real Academia de la Lengua Vasca /
Euskaltzaindia

2008

Bilbao, 23 de octubre de 2009

ÍNDICE

I. Actividades institucionales	4
II. Actividades de la Academia	14
